

...eta Kitto!

2017-XII-22

1039 zkia.



ASKI DA! ALFA n.
NEGOZIAZIOA ORAIN!
ALFAKO BEHARGINAK BORROKAN!!

Etorkizunerako argi bila

Zorionak eta urte berri on!!



EUKI

aholkularitza

- LEGEZKOA
- ZERGAZKOA
- FINANTZARIOA
- LAN ARLOKOA
- ENPRESEN BALORAZIOA





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Altsasuko eibartarrak –

Atsekabeturik nago. Orain dela 43 urte lan eskaintza batengatik Eibartik Altsasura bizitzera joan ginen gure hiru eta lau urteko seme-alabekin. Bizitza han egin genuen eta gure seme-alabak Altsasun hazi ziren. Eta, seme-alabak ez ezik, gure biloba ere bertan hazi eta hezi da. Orain, gure biloba-rengatik dugu egonezin handia.

Jakinen duzuen bezala, Altsasuko Ferietako bezperan, goizaldeko 5:00etan taberna batean bi guardia zibilekin (paisanoz jantzita) eta euren neska-lagunekin izan zen liskarra. Gertakari horrengatik auziperatuak izango diren gazteetako bat da gure etxekoa. Hiru gaztek urtebete eta hilabetea darabate prebentziozko-kartzelaldian; eta beste bost, kanpoan daude epaiketaren zain. Zazpi gazterentzat 50na urte eskatzen du fiskaliak, eta 12 urte eta erdi beste batentzat. Terrorismo delitua leporatzen diete eta, guztira, 375 gartzela-urte eskatzen dute Altsasuko zortzi gazterentzat.

Gertakari hartatik urtebete pasa da, eta ez dut ulertzen nola eska dezaketen halako urte pila gazte horietako bakoitzarentzat. 10 gazteren etorkizuna eta bizitza arriskuan daude; izan ere, eskatutakoa aurrera aterako balitz, betirako despeditu beharko nintzatekeen nire bilobaz, Ander Cobo Amilibiaz, eta ez nukeen ikusiko nola eginen zukeen bere bizitza, zer ikasketa eginen lituzkeen, nolako familia osatuko lukeen...

Horretan pentsatzen dudana aldiro nire bizitzak zentzua galtzen du. Beldur naiz, baina ez naiz koldarra. Justizia da eskatzen duguna: eta, besteak beste, errugabetasun eta berdintasun printzipioak, baita proportzionaltasuna errespetatzea ere.

Ziur naiz guztion artean lortuko dugula. Eskerrik asko!

Milagros Salgado Arteaga

– Gabonetako oparia: Jose Kareaga Guridiren erakusketa –

Diskurtsoa, gutxi gorabehera, betikoa. Instituzioak, familia, lagunak eta isileko obra. Eta nolako zura halako ezpala: Leire eta erakusketa bikaina, dotorea. Ardo eta pintxoaren artean..., musuak, esutasunak, ezagutzak, zorianak... Familia-argazkia, amama eta etorkizunezko ezpala gehiago, jostalariak. Hil-ondoko erakusketa, gu eta dagoeneko ondoan ez dugun (¿...?) artista, bere lan isilaren parean. Ezin ederragoa izan zen. Gaur, ezgaraiko ordu batean, bakarrikan, isiltasun osoz, haren lanak

eta Josek, gizon onak, luze eta sakon hitz egin dugu. Alboetara begiratu ondoren, disimuluz eta bere baimenarekin, pintzelada bat ferekatu dut. Oso bihotz barrenekoa izan da. Bakardadean, isiltasunak beste ahots batzuk ditu. Familiakoa sentitua naiz eta inoiz baino eibartarra.

P.D. Eibarko Portalea (943-708439), Jose Kareaga Guridiren erakusketa. Zatoz jasotzera, zure Gabonetako opari zoragarria da (17.12.15/18.01.07)

J.L.G. Mikelarena

– Eibar primeran, eta banderak? –

Konturatu gara Eibar futbol taldeko banderak oso zahartuta ikusten direla balkoi eta leiho askotan. Ba, Eibar Futbol Taldea animatzeko eta indartzeko, komeniko litzateke eskastuta dagoenak be-

rriztea. Aprobetxatu, eta eskatu Olentzerori bandera gorri-urdin berriak!

Udal Euskaltegiko futbolzale taldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAILLATUNA.- Kolpeen eraginez zerbaitek daukan sakonunea edo apalunea. Gaztelerazko *'abolladura'*. *"Ez detsazu ikusi azpizan daukan maillatunia"*.

MAILLU.- Mailluka handia, mazua. Normalian gauzak apurtzeko erabiltzen da. *"Jo mailluakin gogor, apurtu arte"*.



ENRIKE ZUAZUA

Komuneko matematikak

Erraz aurkitu dezakegu matematikaren ekarpena dron berrietan, banku transakzioen segurtasun kriptografikoan, hegazkinen diseinuan, telekomunikazioetan, mediku terapia berrietan... baina, eguneroko bizitzako oinarrizko tramankulueta matematikak ere garrantzia handia duela ez da horren ezaguna, edo ahaztu egiten dugu sarritan: termostatoa, erlojua, eta baita etxeke komuna ere.

Bai, horrela da, komuneko zisterna edo tanga ere bada matematikaren ezagutza eta ekarpena. *Norbert Wiener*-en esanetan, *Zibernetika* makinaren eta gizakien kontrolaren eta komunikazioaren zientzia da. Hori dela eta, sentsoreak eta eragingailuak tartean direnean Zibernetikaren zientzia hor da, eta, beraz, *Matematikaren Kontrol Teoria* bertan dago baitere. Hori kontuan hartuta, komunean matematika dagoela baieztatu dezakegu.

Komuneko kontrolatzailea identifikatzea erraza da: hondakin eta hustubideak arrastatuz komuna garbitzen duen urak askatzen duen katea edo sakatzailea da. Baina, non dago sentsorea?

Ur deposituaren barnealdean dagoen pilota mugikor flotatzailea da sentsorearen lana egiten duena, uholdeak eta ur galerak ekidituz. Uraren maila onargarria den maximora heltzen denean, pilotak, uretan flotatuz, gora eginez, uraren sarrerako hodia itxi egiten du, berari loturiko heldulekuari tiratuz. Honela, ez da saretik ur gehiago sartzen tanga berriz hutsik egon arte.

Horrela, behin eta berriro, komuna erabiltzen den bakoitzean, zisterna edo tanga urez bete egiten da, behar denean ura askatuz, baina uholdeen arriskuak sahistuz.

Komuneko zisternaren lehenengo prototipoak duela mende bat baino gehiago asmatuiko dira, 1886an hain zuzen ere. Ordutik hona gure bizitzan funtsezko tresna bihurtu dira.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, komunaren inguruko tabuak saihesteko eta ur saneamenduak egungo garapenean duen lehenetasuna azpimarratzeko asmoarekin, azaroaren 19a "World Toilet Day" delako munduko komunaren eguna deklaratu zuen.

Euskal Herrian ere ozpatu zen, hainbat ekitaldirekin, guztion konzientzia areagotzeko.

Ura zaindu, Planetaren iraunkortasunaz arduratu, osasuna hobetu!

NAN eta pasaportia tramitatzeko bulegua urtarrillaren 11n zabalduko dabe

Luzaruan zain egon eta gero, azkenian aurreko astian baieztatu eben Nortasun Agiri Nazionala eta pasaportia egin eta barritatzeko bulegua ipiñiko dabela martxan Eibarren. Urtarrillaren 11n zabalduko dugu atiak, udaletxe barruan zerbitzu hori emoteko moldatuko daben buleguan. Zabaldu aurretik, urtarrillaren 8tik aurrera egongo da alde aurretik hitzordua eskatzeko aukeria, 060 telefono zenbakira deittuta edo internet bidez, www.citapreviadnie.es helbidian. Agiri bixen inguruko informazio guztia, bestalde, www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/dni web orrixan eskuratu leike. Buleguan jendiari harrerria egitteko ordutegixa astelehenetik barixakura bittartian, 08:00etatik 14:00xetara izango da.



lagun izan dira aurten Larrialdietarako Dirulaguntzak jaso dabezenak, iaz baiño 152 lagun gehiago. Guztira 485.229 euroekin lagundu detsez eta, kopuru horretatik, Udalak 92.200 ipiñi ditu. Euretako askok biharra badake be, egoera prekariuan dagoz, etxeke gastueri aurre egin eziñik. Herriko hainbat emakume alargunen egoeria be ez da samurra eta larri ibiltzen dira hillia amaitzeko.

Astelena Haur Parkia martxa betian zabalduko dabe Gabonetan

Astelena frontoiko Gabonetako Haur Parkiak aurreko zapatuan zabaldu zittuan atiak eta, behin aurtengo denboraldia inauguratuta, aurrerantzian be zabalduko dabe, betiko martxan: bixar ez eze, dato-

ren martitzenetik hurrengo zapatara bittartian be egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00xetara eta 16:45etik 20:30xetara (abenduren 25ian itxita egongo da). Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak 2-12 urte bittarteko haurrendako antolatzen daben parkian jolas ezberdiñak eskintzen dittue eta sarreriak 3 euro balixo dau (EMGI alkartiak zeozer erosterakuan emoten dittuan txartelarekin duan sartu leike). Halanda be, ume bakoxtari 90 miñutuko tar-



Datorren martitzenetik hurrengo zapatara bittartian egongo da zabalik; bakarrik 25ian itxiko dabe. Maialen Belaustegi

tia lagako detse, gehixen jota, segurtasuna bermatziarren kantxan aldi berian 150 ume egon leikiazelako gehixenez.

Bestalde, bezeruen artian "txiki-parke-ara" sartzeko txartelak banatu nahi daben dendak EMGI-rekin kontaktuan ipiñi eta eskatzeko aukeria izango dau (berdin detsa EMGI-ko bazkidia dan ala ez). Horretarako, 943254083 telefono zenbakira deittu leike edo, bestela, info@eibarcentrocomercialabierto.com helbidera idatzi.



"Irratizkina: Entzun zaitzate! izeneko egitasmua zapatu arratsaldian eta domeka goizian prestau eben Azpiri eraikiñaren azpitan. Maialen Belaustegi

Urkizun ipiñittako irratixak ahotsa emon zetsan auzuari aurreko asteburuan

Sormenarekin zuzen-zuzenian lotuta dagan EibarLab's proiektuaren barruan, aurreko asteburuan Urkizun "Irratizkina: Entzun zaitzate!" izeneko egitasmua ipiñi eben martxan Hirikiten alkartiak, Eusko Jaurlaritzako Sormen Lantegixen, Kutxa Fundaziñuaren, Habic-en eta Edukeibarren laguntasunarekin. EibarLab's proiektuari lotuta egin dan hirugarren ekitaldixan, zapatu arratsaldian eta domeka goizian Azpiri eraikiñaren azpitan martxan egon zan irrati emisora bat eta parkian eta inguruan ipi-

ñi zittuen irratixa entzuteko estruktura batzuk izan ziran protagonista. Emisoria zein estruktura abenduaren hasieran egin zan taillar batian eraiki zittuen proiektuan parte hartzera animau diranen artian eta, irrati bittartez emitidu zan programaziñua, barriz, herriko kolektibuak zein bestelako taldiak osatu eben, batzuk berbetan, beste batzuk kantuan... Oinguan, antolatzaillien asmuua espazio publikuaren eta teknologixaren erabillerak konbinatzia zan eta helburua betetzia lortu eben.

autuan

TOKI ALDAKETIA MERKADILLUAN

Gabonetarako barrakak Txaltxa Zelaixan eta Urkizuko parkian ipiñi dittuela eta, datorren astian tokiz aldatuko dittue eguaztenetako merkatu txikixak: normalian Txaltxa Zelaixan egoten diran postuak Toribio Etxebarria kalia ipiñiko dittue eta Urkizukua, barriz, betiko parkian barik goikuan izango da.

EROSKETA-BONUAK HERRIKO DENDETAN

Gabonetarako kanpaiñaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saillak 250.000 bonu merkaturatuko dittu, jendia eroatera animatzeko asmuarekin. Kanpaiñarekin bat egitten daben dendetan egongo da bonuak eskuratzeko aukeria, 20 eurotan, eta trukian 30 euro gastatzeko aukeria eukiko dabe bezeruak. Kanpaiñarekin bat egitten daben dendak sarreran edo eskaparatian kartela ipiñiko dabe, jendiak jakin deixan.

www.kolorlan.com

667 54 89 16



*Ondo begiratu duzu?
 Ez zara zu izango Urvat Waterpolo taldearen Sanandresetako otarraren irabazlea, ezta?*

Otarra **1.191** zenbakiari egokitu zitzaion zozketan. Bestela, erreserbako zenbakiak honakoak dira: **1.773, 798, 1.004 eta 1.559.**



EIBAR

ELGOIBAR



Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
 erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
 Taldea

GRUPO
funeuskadi



Energixaren Eskualdeko Behatokixa zabaldu dabe Debabarrenian

Astelehen goizian aurkeztu eben Debabarreneko Energixaren Eskualdeko Behatokixa, Debegesaren egoitzan, Monica Pedreira Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zuzendarixaren, Felix Asensio Obra Hidraulikoetako zuzendarixaren, Juan Angel Balbas Debegesako zuzendarixaren eta eskualdeko alkate eta udal ordezkariaren partehartzia izan eban ekitaldixan. Energixaren Eskualdeko Behatokixa Informaziño eta Komunikaziño Teknologixetan oiñarritzen dan plataforma barriztaillia da eta, bestiak beste, horniduren kudeaketia eta udal instalaziñuen energixa konsumuen azterketia egittia ahalbidetzen dau (argiterixa publikua, eskillara mekanikuak, udal eraikiñak...). Erremintta honekin jasagarritasunaren aldeko

pausuak emotiaz gain, dirua aurreztia eta eraginkortasun ekonomikua lortzia nahi dabe.

Behatokixak eskualdeko sei herri gipuzkoarreri emongo detse zerbitzua (73.000 biztanleri) eta, horretarako, energixaren kudeaketarako SIE (Energixa Informaziñuaren Sistemía) software bat ezarri dabe. Adierazittakuaren arabera, "ezer inbertidu barik, baka-rik neurri batzuk hartuta, Behatokixak 74.073 euroko aurrezpen potentziala detektau dau, energixa faktura osuaren %4,3".

Behatokixarekin batera, Debabarrenak Energia Ataria be sortu dau, herrittarrak informaziñua modu argixan jaso ahal izateko (www.debegesa.eus webgunian sartuta, han topauko dozue atarirako sarbidia).

Artisautza eskintza zabala dago salgai Eibart Azokan



Aurreko barixakuan zabaldu eben Eibart 13. Gabonetako Azokia Untzagan, horretarako jubilauren aldian ipiñi dittuen kasetetan. Eibarkuekin batera Gipuzkoa eta Bizkaiko artisauak dagoz, euren produktuak saltzen. Salgai ipiñi dittueneren artian denetarik dago: pitxiak, arropak, komplementuak, jabo naturalak... Eibart Eibarko artisauen alkartiak urtero antolatzen daben azokia urtarrillaren 5era arte egongo da martxan, goizeko 11:00etatik 14:30xetara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara (abenduen 25ian eta urtarrillaren 1ian ez dabe zabalduko).



Hamar irabazleetako bi, Guby Neskak eta Aldazabal dendetan.

Dendarien Elkarteak 200 euroko 10 txartel oparitu dittu

Aurreko hillian egindako moduan, abenduan be zozketia egin dabe zeozer erosi eta pagatzeko Eibarko Dendarien Elkartearen txartela erabili daben bezueren artian. Honek dira 200 euroko erosketaxartel bana irabazi dabenak: Lorena Izagirre (Askasibar), Mireia Alonso (Leder), Malu Monasterio (Aldazabal), Tere Garaizabal (Burbujas y Más), Idelkis Nuñez (Twins), M^a Jesus Gutierrez (Alberto Bitxitegia), Leire Etxeberria (Guby Neskak), Sonia Etxaide (Irritsa) eta Yolanda Uriarte (Oskarbi Oinetakak). Zorionak!

Kultur aniztasunaren aberastasuna erakusteko jaixa egin zan Untzagan

Astelehenian (abenduak 18) etorkiñen nazioarteko eguna izan zala eta, kultura aniztasunaren aldeko jaialdixa egin zan Untzagan, gure herrixan daguazten etorkiñen zein harringuen parte-hartziarekin. Goiz osuan taillarrak, musikia, dantzak eta beste jarduera batzuk eskindu zittuen, bazkal-tzera juateko ordua ailllegau zan arte.



TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Argazki historiko erraldoiak, antxiñako Eibar gogoratzeko

Herrixaren memoria bisuala indartzeko asmuarekin, Eibarko hainbat tokittan argazki erraldoiak ipintzen ibilli ziran astelehena, Ego Ibarra batzordiarene aurtengo lan-plangintzaren barruan. Idoya Sarasketa Ego Ibarra batzordeburuak, Juan Luis Mardaras SD Eibarko presidente ohiak eta Jon Arregi SD Eibar Fundazioaren arduradunak prentsaurrekuan azaldu ebenez, "aurtengo aurrekontuaren barruan sei argazki ipintzeko asmua daukagu. Lehen hirurak astelehen honetan ipiñi dittue: bat Ipuruako foball zelaxaren sarreran, beste bat Untzagako jubilau etxiaren fatxadan eta hirugarrena, barriz, Karmengo eliza aldameneko horman". Proiektuak SD Eibar Fundazioaren diru-laguntza jaso dau eta aurrekontua (sei argazkixendako) 18.000 eurokoa da. Fundaziño arduradunaren berbetan, "foballetik kanpora daguazan proiektuetan laguntzeko aukeriarekin pozik gaiz, are gehixago andrak foballian erakusten daben argazkixaren kasuan". Izan be, Ipuruan ipiñi daben argazkixan "Eibar" emakumien foball taldia ikusi leike, Ipuruan bertan, 1971an ikastolaren alde jokaturako partiduan. Untzagako jubilau etxian ipiñitako irudixa, barriz, 1910. urtekua da eta jubilauak aukeratu dabe. Eta Karmeliten aldamenekua 1960.



Mardaras, Sarasketa eta Arregi Untzagako argazkixaren aurrian.

urteko panoramika bat da. Esandakuaren arabera, argazkixak luzaruan irauteko, euri eta bestelakuengandik babesteko tratamendu berezixa dake.

Gabonak ospatzeko meza berezixak eta jaixotza Azittaiñen

Datozen egunotan meza berezixak egingo dittue Azittaingo elizan, Gabonak ospatzeko: abenduaren 25ian, Jesusen jaixotza ospatuko dabe; abenduaren 31n, barriz, urtia agurtzeko mezia egingo da; urtarrillaren 1ian, urtiari ongietorrixa emotekua; eta urtarrillaren 6xan Hiru Erregien aurkezpena ospatuko dabe. Meza guztiak goizeko 11:00etan izango dira eta, mezia emoten daben bittartian, Azittaingo eliza barruan ipiñi daben jaixotza ikusteko aukeria izango dau nahi daben guztiak. Bestalde, Azittaingo parrokiako ordezkariak jendiari gogorazi nahi detsa Gabonak pasauta be, urte osuan ospatzen dittuela mezak, domeka eta jai egunetan, 11:00etan.



Garagunekuak egindako eskulan eta apaingarrixak salgai

Beste urte batzuetan bezala, aurtan be Goienetxe Fundazioaren Garagunera juaten diranak kalera urten dira eurak egindako eskulanak erakutsi eta saltzera. Horretarako postua aurreko astian ipiñi eben Untzagan eta oinguan batez be gabonetako apaingarrixak eruan zittuen. Baten batek zeozer erosteko edo ikusteko interesa eukiz gero, aste barruan Garagunera (Ardantza, 2) juan eta galdetzeko aukeria be badago.

“Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo dute zuhaitz ardaska gazteak”. Xabier Leteren hitzek inspiratu dute Esther Galarzak gaur 19:00etan Topalekuan aurkeztu duen erakusketa egiteko (urtarrilaren 7a arte egongo da zabalik). Naturari omen egin eta ingurumena zaintzeko kontzientzia berpizteko lanak aurkituko dira bertan. Olerki horretatik abiatuz zeramikako hamabost pieza berri eta hamabi margo inguru jarriko ditu ikusgai artista eibartarrak, azken urteotan izandako bilakaera islatu eta bide berri bati ekinez.

Esther Galarza (artista):



“Hartu-eman naturala sentitzen dut ZERAMIKAREKIN”

- Zer aurkituko dugu zure erakusketan?

Orain dela hamar urte nahiko erakusketa garrantzitsua egin nuen. Nire emakumeak, eraikuntzak eta abar aurkeztu nituen bertan, eta biran ibili nintzen horrekin. Obrekin haria jarraitu nuen, baina orain horrekin moztu dut. Mendiak, itsasoak eta inguru-nearen kutsadura dira nire ardurak momentu honetan, ildo hori jarraitzen du eta erakusketak. Natura artea da eta dena puskatzen ari gara. Nire asmoa naturaren edertasuna eta nik sentitzen dudana erakustea da. Argiekin jolasten dut, eta basoa eta itsasoa egongo dira presente.

- Nolako lanak aurkituko ditugu?

Piezak ez dira figuratiboak izango, abstrazioak baizik. 2002. urte inguruan buruak egiten hasi nintzen eta handik gorputzera pasa nintzen, gauza biak lotuz. Orain dena biribilera eraman dut. Buru batzuk egongo dira ikusgai, niretzat oso garrantzitsuak izan direlako Oteiza, Brancusi eta Modigliani. Begi barik begirada duten aurpegiak gertatzen den guztiaren lekuko dira.

- Erakusketei begira sortzen duzu edo sortzen duzulako erakusten duzu?

Lehendabizi zein teknika erabiliko dudana erabakitzen dut. Eskultura asko gustatzen zait eta nire ofizioa erabiltzen dut horretarako. Zeramikaren bitartez burutzen ditut nire lanak. 15 urte inguru daramatzat plakekin lan egiten, eskultura trinkoarekin gero buztina kentzen ibili beharrean. Plaka bigunak edo gogorrak erabiliz nahi ditudan formak lortzen ditut. Beti dago ezuste-faktorea eta buztinak berba egiten du nahi barik. Materia organikoa da eta nik islatzen ditudan formak ere organikoak dira. Buztinak bere azken forma hartzen du eta gero lanak amaitzeko fasea sartzen da, esmalteak ematea eta abar. Erakusketa honetan ere plakak erabili ditut. Plaka luzeak dira eta espiralean jarri ditut. Espirala oso presente dago erakusketan, behetik gora eta goitik behera. Lehen planoan marrazten nituen, baina orain hiru dimentsioak dira eta marraskiloetan amaitu dut azkenean.

- Buelta asko ematen dira hasierako asmotik amaierako emaitzara?

Bai. laz itsasoaren inguruko lana egin nuen ikasleekin eta nik ere pieza bat egin nuen eurekin. Marraskiloak ziren eta gai ho-

rri beste buelta bat eman behar niola sentitu nuen. Erakusketaren obretan lanean hasi eta marraskiloak egiten amaitu dut.

- Nola lortzen duzu eta nola mantentzen duzu inspirazioa hainbeste urte sortzen ibili ostean?

Gai bat ipini behar da beti eta egunero egin behar da lan. Gauzak lantzen ari zarenean etortzen da inspirazioa. Erakusketan ikusiko dugun basoa egiteko, adibidez, mendian aurkitu nuen inspirazioa. Urbiara bidean zuhaitz artean argia nola sartu eta irtetzen den ikusi daiteke, eta eszena horretatik zerbait lortu behar duzula pentsatu nuen. Hiru urte daramatzat akuarelekin basoak margotzen. Oso margolan errealistak egiten hasi nintzen eta abstrakziorantz jo dut. Akuarelak ere ikusgai egongo dira erakusketan.

- Beraz, ez dira zeramika-lanak bakarrik ikusiko?

Ez, basoaren mural handi bat ere egin dut besteak beste. Margo- eta eskultura-erakusketa izango da.

- Inspirazio aldetik hustuta sentitu zara noizbait?

Gauza bat gertatu ohi da eta orain gertatuko zait niri. Asko ematen duzunean, hustu egiten zara bapatean. Ez da txuri gertatzea, baizik eta zure buru eta gorputzak parentesia egiten dutela, gero jarraitzeko. Hustu egiten zara berriz betetzeko. Arnasa hartu behar duzu, lagunekin egon, eta argiarekin eta pertsona maiteekin berriz bete. Gauza txarrek ere energia ematen dizute zerbait egiteko, denak balio du. Erakusketa bat egiten duzunean gero beste leku batera joan behar zarela jakiteak asko laguntzen du. Horrek haria jarraitzeko martxan mantentzen zaitu. Prozesu bat amaitzean ez zara berehala beste gauza guztiz ezberdin bat egiten hasten, bide bat jarraitu behar da eta bide hori beti ikusten da.

- Zergatik zeramika?

40 urte egin ditut zeramikaren munduan. Ostolazan ezagutu nuen zeramika, gustatu egin zitzaidan eta horretan jarraitu nuen. Bide honetan beste teknika batzuk ezagutu ditut, baina beti bueltatzen naiz buztinera. Beste material batzuk landu ditut, baina ez naute betetzen. Zeramikarekin azkar lortzen ditut formak eta zeramikarekin bat sentitzen naiz sortzen dudanean. Hartu eman naturala da. Obra sortzeko fasean gertatzen zait hori. Gero esmalte eta kimikaren etapa geratzen da, eta pazientzia eduki behar da amaitzeko. Akuarelekin ere berdin gertatzen zait.

- Zure lanak ikustean 'Esther Galarza' marka dutela uste duzu?

Gaur egun bai. Ez dakit zein den marka edo ezaugarri hori, baina jendeak ezagu-



Ekhi Belar



tzen du. Urte asko dira artearen munduan eta horrek ez du meritu handirik.

- Uste duzu asko eboluzionatu duzula zure ibilbidean?

Ez naiz geldirik geratu eta beti nago ikasten. Gauza berriak ikusi eta kontrastatzera joaten naiz. Beti egongo behar zara ikasten eta etxetik kanpo gainera. Etxean denak gara errege-erreginak. Gogorra da, baina irten egin behar gara, gure lanak erakutsi behar ditugu, eta jendeak dioena entzun eta guk gurea esan behar dugu.

- Zeramika irakaslea zara baita ere. Belaunaldi berrietan beste estilo, gai edo espresatzeko erarik somatu duzu?

Urte honetan nahiko eboluzio handia ikusi dut. Eskola hasi zenean zeramika modan zegoen, baina gero joera hori desagertu zen. Eskolak jarraitzeko haina jende geratu zen eta orain berriz berpiztu da. Arte Ederretako sei ikasle ditut, maila handiko jendea dago aurten, eta beste espresio bat eman nahi diote euren arteari. Pertsona nagusiekin ha-

si zen eskola, gero ume asko etorri zen eta orain umeak ez dira etortzen, zerbait espezifikoa nahi duen jendea dator orain. Bi-hiru urte egiten dituzte, teknikak ezagutu eta beste tresna bat dute euren lanekin jarraitzeko.

- Maila handiko jendea zuregandik ikastera etortzea...

Denetarikoa ikasleak eduki behar dituzu eta eurak ikastera datoz, bakoitza bere nahi eta beharren arabera. Proiektu batekin etorri dira azken aldia eta niretzat oso garrantzitsua da hori, ezberdina, eta martxan jartzen nau. Eurekin batera ikasten dut eta beste ikuspuntu batzuk ezagutzen ditut.

- '...eta kitto!' Euskara Elkarteak Kirol Sariak banatuko ditu Gabonzahar egunean eta, urtero bezala, zuk egin dituzu garaiak. Nolakoak izango dira aurtengoak?

Ildo bat jarraitzea lortu dut biribildutako aldizkariak irudikatzen dituzten piezekin eta horrekin jolasten dut urtero. Kolore eta itxura aldetik ezberdinak izaten dira urtetik urtera, baina hori da ildo.

Jende ugari bildu zen martitzenean udaletxeko patioan Kike Amonarriz soziolinguistaren inguruan, AKEBAI taldeak antolatutako "Euskara bidegurutzean, baita Eibarren ere!" hitzaldian. Amonarrizek eskainitakoarekin "Hamaika Berbaldi" egitasmoa abiatu da. Asmoa, orain hasi eta 2018ko azarora bitartera 11 hitzaldi, tertulia edota mahainguru egitea da, besteak beste euskararen aldeko diskurtsoa berritzeko, euskaraz bizi nahi dugunok ahalduntzeko, euskaraz bizi ez den jendearengana ailegatzeko eta "11 egun euskaraz" Euskal Herri mailako egitasmorako eibartarrak martxan ipintzeko.

AKEBAI herri-plataforma eta, horren baitan, Kikereren hitzaldia bera ere azken aldian hainbat herritan ikusten ari den jakinmina eta ilusioaren adibide dira Kike Amonarrizentzat: *"sorpresa asko hartzen ari naiz azken bolada honetan. Zerbait berria zabaltzen ari dela ikusten dut. Hemen ere, Eibarren, kezka baino ilusioa ikusten dut. Beraz, animo!!!"*.

Euskarak momentu berezi bat bizi duela eta diskurtso sinbolikoetatik alde eginez, urrats praktikoetara pasatzeko unea dela azaldu zuen tolosarrak, *"euskararen erabileran pausoak emateko garaia iritsi da. Ezinbestekoa da ahalmen hori aktibatzea eta pauso kualitatibo zein kuantitatiboak ematea. Euskararen alde egotetik, alde egitera pasatzeko unea da"*.

Eibarren biztanlegoaren erdiak euskaraz daki; erabilera, aldiz, erdira jaisten da. Umeen %50k erabiltzen du, gazteen %25k eta helduen %20k. Kike Amonarrizek argi eta garbi azaldu zuen helduek ere daukagula erantzukizuna. *"Zer egin behar dugu helduek ejemploa emateko? Hori da gakoa. Gure belaunaldiari dagojio aldaketa, ilusioa sortzea"*.



KIKE AMONARRIZ: "Helduok euskera erabiltzen badugu, gazte eta umeen erabilerak gora egingo du"

Hizkuntzaren galerari buruzko paradigma ezagutzen dugu eta asko idatzi da horretaz, *"baina begiratu dezagun biziraupenaren paradigmatik. Nola liteke prestigiorik eta botererik izan ez duen hizkuntza bat bizirik egotea? Milioi batetik gora pertsona gaude munduan euskaraz berba egiteko kapaz. Zergatik ikusten dugu gure burua hain txiki? Proiekzio sozial mundiala dauka euskarak eta erreferentzia bihurtzen ari gara munduko beste hizkuntza gutxientzat. Bizirau-pena bermatuta dago-*

ela esan genezake, baina ez normalizatoriori begira, horretarako baliabideak eta erabaki politikoak behar dira".

Eibarren AKEBAI

Espazioak irabaztearen eta diskurtsoa berriztearen garrantziaz ere egin zuen berba Kike Amonarrizek, *"euskarak ezin ditu 'txokoak' izan, denean egon behar du"*. Eta zentzu honetan, AKEBAI bezalako inizatibek ekarpen handia egin dezaketeela adierazi zuen. Bizikidetzaren identitatea, berdintasuna, aintzatasuna, erantzukizuna, justizia eta errespetua bezalako baloreak azpimarratu zituen: *"Ez dugu biziraun nahi, baizik eta ondo bizi nahi dugu. Aintzatasunean, beste hizkuntzak aintzat hartuta eta konplizitatearen ikuspegitik lan egin nahi dugu, eta enpresa eta erakundearen agendaren erdigunean egon behar da euskara"*.

Hainbat aholku eman zizkien han bildutakoei: ohiturak sortu behar dira, erabaki pertsonalak hartu (lehen hitza euskaraz) eta, bestetik, norberaren euskara prestigiatu. *"Eibartarrak oso harro zaudete zuen euskararekin eta hori oso inportantea da"*.



Kike Amonarrizek eskainitako saioak interes handia piztu zuen.

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad
iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martínez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3^{an}

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

AROTZAK

ulmar
S.L.

metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Erreal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO KULTURA BATZORDEA**Helburuak eta eskainitako zerbitzuak**

Kultura batzordeak mende erdia baino gehiago darama lanean euskal kulturak barnean biltzen dituen espresio desberdinak, ohiturak, folklorea eta euskara bera sustatzeko asmoz. Ekimen parte-hartzaileak antolatzea du helburu, euskara bizkar hezurra delarik.

Ekintza nagusiak

Bere eginkizunik nagusia, urtero, maiatzaren azkenengo asteburuan Euskal Jaia antolatzea da. Egitarauan Euskal dantzak garrantzi berezia hartzen badu ere, artisautza, musika, bertsolaritza, herri kirolak, eta abar luze baten adierazleak ere jorratzen dira.

Klub Deportiboko filosofiari jarraituz bere funtzionamentua elkarlanean eta parte-hartzean oinarritzen du. Horretarako, egun, Klub Deportiboko Kezka dantza taldeak eta Kultura batzordeak gain, herriko hainbat elkarte eta eragilek hartzen dute parte jaiaren garapenean.

Kultura batzordeak Eibarko Euskalgintzak antolatzen dituen ekimenetan ere bere ekarpena egiten du.

Kultura batzordea Deporreko lokaletan biltzen da astero urtariletik ekainera eta maiztasun txikiagoarekin gainontzeko hilabeteetan, beharren arabera. Batzorde zabala da eta atea zabalik ditu parte hartu nahi duten guztiendako, antolakuntzan parte hartzeko, ekarpenak egiteko edota norberak nahi duen guztirako.

Helbidea: Toribio Etxebarria, 16 - 1.
Telefonoa: 943 20 19 04 (bulegoa)
610 44 87 00 (Mariano)
E-maila: euskaljaia@deporeibar.com



Urtero maiatzean egiten den Euskal Jaia da Klub Deportiboko Kultura batzordearen jardueraren nagusia.

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA**Helburuak eta eskainitako zerbitzuak**

Argazkigintza sustatzea Eibarren, irudiaren kultura aberastuz eta zabalduz.

Ekintza nagusiak

- Erakusketak egiten dituzte hilerio Portalea tabernan eta Ambigú kafean. Baita Klub Deportiboan ere, nahiz eta momentuz itxita egon.
- Erakusketak urtean birritan Portalean eta Topalekun.
- Argazkilaritza Maiatzean ekimena antolatzen dute: Maiatza osoan urtero Eibar argazki blai (ikastaroak, erakusketak, argazki rallya, ...).
- Laguntza eskaintzen diete beste erakunde batzuei erakusketak, ikastaroak eta lehiaketak antolatzeko.
- Euskal Herriko Argazkilaritza Taldeen Elkarteko partaide izanda harreman estua daukate beste taldeekin ikastaroak, erakusketak eta rallyak antolatzeko.
- Astero biltzen dira lanak lantzeko, erakusteko eta beste batzuen lanak aztertzeko.

Helbidea: Toribio Etxebarria, 16 - 1.
Telefonoa: 943 20 19 04
E-maila: argazkilaritza@deporeibar.com
webgunea: www.deporeibar.com



Argazkilaritza taldekoak astero biltzen dira euren lanen gaineko hausnarketa egiteko eta beste batzuen lanak aztertzeko.

MIREN MARTINEZ (boluntarioa)

“Bidaia honetan unibertsitatean baino gehigao ikasi dut”

Miren Martinez eibartar gaztea Costa Rican izan da azaroaren 26tik abenduaren 8ra Emaús Fundazioko formakuntza-bidaia batean. Inklusioarekin eta gizarte eraldaketarekin lotutako gaiekin egiten du lan fundazio honek, eta hezkuntza alorrean daukaten Bizi-Hezi ikastaroaren berri izan zuenean bertan izena ematea erabaki zuen 20 urteko eibartar gazteak. Donostiako Filosofia fakultateko 3 mailako ikaslea da Miren eta urteak daramatza boluntario gisa lan egiten.

– 12 egun eman dituzu Costa Rican. Nola sortu zitzaizun aukera hau?

Emaús Fundazioaren Ikastaroaren goiburua “Komunitate eraldatzailerak eraikitzen: hausnartu, pentsatu eta ekin” da. Ikastaroak komunitate inklusibo, ekitatibo eta alternatiboak eraikitzeko helburua duten esperientziak konpartitzeko aukera ematen du. *On-line* da, 120 ordukoa eta formakuntza-bidaia ikastaroaren parte bat da. Costa Ricara egin dugun bidaian gazteena nintzen eta erakunde edo talde desberdinetako oso jende interesgarria ezagutu dut: SOS arrazakeriako neska bat, Kalkuta GKEko bat, Ongietorri Errefuxiatuak taldeko bolondresak... Guztira 13 pertsona egon gara.

– **Aurretik ere boluntariotza munduan jardundakoa zara...**

Aldatzen bolondres bezala hasi nintzen merkataritza zuzenean, eta Gazte Aukerarekin Frantzia egon nintzen auzo-landegi batean lanean. Donostiako giza eskubideen zinemaldian epaimahaikide bezala ere jarduten dut.

– **Zer nolako esperientziak ezagutu dituzue Costa Rican?**

Iritsi bezain pronto, Costa Ricako egoera politikoa, kultural eta soziala azaldu ziguten eta, ondoren, komunitate desberdinak eza-



gutuzen jardun genuen. Oso interesgarria iruditu zait Costa Rican unibertsitateko ikasle bakoitzak, gradua atera nahi badu, 300 ordu egin behar dute komunitate baten boluntariotza egiten. Ikasle hauetako batzuk psikiatriko bateko irratian egiten zuten lan, eta eurekin batera proiektu hori ezagutzeko aukera izan genuen. Estereotipoak apurtu nahi zituzten irratsaio horren bitartez, eta irratia bidez ere aldaketa txikiak lortu daitezkeela ikusi genuen. Taldeko beste kide batzuk hondartza bat garbitzen egon ziren, bost orduetan 800 kg plastiko jaso zituzten! Talde txikietan banatzen ginen, eta, ondoren, gure artean ikusitako esperientziak partekatzen genituen. Talde feministetako kideekin elkartu ginen Casa Batsu talde feministari esker. Bestetik, bi edo hiru eguneko bira ere egin

genuen. Batzuk bibri kulturako indigenak eta euren komunitatea bisitatzera joan ginen Panamako frontera ingurura. Esperientzia izaugarria izan zen, desberdina. Txalupa batean iritsi ginen eta Casa Conikan euren kultura eta hizkuntza propioa (bibria) bizirik eusteko egiten dituzten ritualak eta jarduerak desberdinak ezagutu genituen. Hango emakume batzuk daukaten txokolate-enpresa ere ezagutu genuen.

– **Beraz, esperientziekin betetako motxilarekin bueltatu zarete.**

Ikaspen mordoak atera ditugu. Hezkuntza popularrean ere asko ikas daitezkeela ikusi dugu. Unibertsitatean baino gehiago ikasi dut! Nire inguruan dauden pertsonekin ere pila bat ikasi dut, bizitzeko alternatibak ikasi ditut, gizarte kontsumistaren aurrean alternatibak badaudela, alegia.

M^a BEGOÑA MINTEGUA ARAMBARRI

2017ko abenduaren 13an hil zen



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



moda



arkitektura

nagore fernandez




Oihartzun ikaragarria izan du Eibar estatuko hiri zatarraren artean kokatu duen zerrendak. Baita #eibarezdatarra traolak ere, gure nortasuna goraiatzan duten artikuluei eta herriko txoko ederrenen argazkiei lotuta. Eibartarrak "kaiola itsusian bizi diren txori ederrak" garela esaten duenik ere badago. Baina nik ez dut uste gure kaiola zatarra denik, beharrezko mantentze-lanak ondo bete ez ditugula pentsatzea nahiago dut.

Zatarraren sex appeal-a

Eibarren, Gipuzkoako beste hainbat herri industrialetan bezala eta dagoneko adibide nabarmen asko eraitsi diren arren, ugariak dira oraindik xarmaz jositako eraikinak: Lantokien gainean erropa garbia haizearekin dantzatzera ateratzen dituzten etxebizitzak, kurba dotoreak marrazten dituzten fatxadak, hortzez betetako irrifarrak bailiran irekitzen diren leiho ilarak. Zorionez, badira edertasun bitxi hori azaleratzeko lanean diharduten elkarte eta proiektuak.

Baina beldur naiz herritarren gehiengoa -eibartar izatearen harrotasunak ahoa betetzen badigu ere- ez ote garen toki miragarri horiei bizkarra emanez bizi. Hor daude aspalditik, ikustera ohituta gaude eta ez diegu jaramonik egiten.

Ba, zera: Gurea ez da, ziurrenik, Florentziako Santa Crocek Stendhal idazle frantsesari sentiarazi zion sindrome bera sortuko lukeen paisaia. Baina zinema edo musika izarrekin gertatu ohi den moduan, begiratzen duten begien arabera, ustez itsusia zena erakargarri bilakatu daiteke... Aprobetxa ezazue datozen jaiegunetako bat aipatutako eraikin horiei so eginez bueltatxo bat emateko eta ez zaizue damutuko. Eibar industrial, *sex symbol* galanta!



Elgoibarko L.H.rako
Institutuko
Ikasle ohien elkarte

BIZITZAREN ZEHARKAKO FORMAKUNTZA DOANEKO IKASTAROAK (Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzarekin)

- WHATSAPP ETA INTERNET, helduentzat (50 h)
- SARE SOZIALAK ETA ZIBER-SEGURTASUNA (15 h)
- GAZTELERA, erdi maila (60 h)
- EUSKERA, oinarritzko maila (60 h)
- GENERO INDARKERIA (18 h)
- ETXEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA LEHEN SOROSPENAK (42 h)
- FAKTURAK: IRAKURKETAK ETA ORDAINKETA ERAK (30 h)

MATRIKULA epea zabalik 2017ko abendutik aurrera



Informa zaitetz!

CIFP MEKA LHIII
Tfnoa. 943 74 80 19 ELGOIBAR
prestakuntza@meqa-elgoibar.net



Bihargiñak Alfa ez ixteko borrokarekin segitzen dabe

Aspaldiko partez, gure herriko kalietan egun batian bai eta bestian be bihargiñak protestan ikusten ari gara azken egunetan. Arrazoirik ez jakue falta, gaiñera: 129 famelixa lana eta soldata galtzeko arriskuan dagoz Eibarren, gure herrixan industria zein gizartiaren sinbolua izandako Alfak gaur egunian bizi daben egoeriaren eragiñez. Zuzendaritzak abenduaren 7xan Alfa Precision Casting enpresaren likidaziñua gauzatzeko erabagixa hartu ebanetik, lehenago be zalantzas beteta eguan etorkizuna are illunagua ikusten dabe bihargiñak eta, horrerri bueltia emon nahixan, greba eta borrokaren bidia hartu dabe gehixenak

Alfa Taldiaren bihargin-kopuruak modu nabarmenian egin dau behera azken aldixan eta bidian lanpostu mordua galtzen jua dira, gaiñera. Bihargiñak emondako datuen arabera, 800 bihargin izatetik 200 izatera pasau dira azken urtiotan

Esaten dabenez, "oin dala bost urte, Alfako bihargiñori soldatetan ezarri zeskuen jaitsieria %10 eta %30 bittartekua zan, baktzaren soldata-maillaren arabera. Jaitsieria haundixa izanda be, holan lanpostueri eutsiko jakola eta, onartu egin genduan. Gogoratu nahi dogu gure erosahalmenak izandako murrizketia honezkerro %23kua dala batatzbeste. Aurtengo uztaillian, Grupo Alfako zuzendaritzarekin izan genduan azken billeran, Alfa Precision Casting enpresaren altxortegixa oso positibua zala esan zeskuen, baiña halanda be, 6.000.000 euroko hipoteka-zorra zekala. Bihargin guztiak jakin badakigu zor hori Industrial Gol erostiak eragin ebal.

Eta zer pasau da Industrial Gol-en salmentarekin irabazitako diruarekin (22.000.000 euro inguru)? Zoritxarrez, erantzuna guk geuk billatu bihar izan genduan Merkataritza Erregistruan. Han baietzatu zeskuen enpresaren 3 konsejerok euren artian banatu zittuela 2.289.092 euro, 'arrakasta-sari' kontzeptuan. Horrez gain, ez dogu ahaztu taldiarena zan beste enpresetako baten, Mecánicas Mallabiren likidaziñuan egon zan gardentasun eza, ezta asmo gaiztuak be".

Aittatutako kontu honek eta beste batzuk ikusitta, bihargiñak "nazkatuta" daguezela diññue, "aldiro-aldiro enplegua erregulatzeko espedientiak aurkeztuta egitten deskuezen mehatxuekin, bertako bihargiñon famelixen etorkizunarekin zelan jokatzen daben ikustiarekin, soldatak jaistiarekin, horrenbeste urtian izoztuta eukitziarekin, enpresia likidauko dabela esaten behin eta barriz egitten dittuen mehatxuekin... eta, jakiña, Auto

Urtetik urtera okertzen jua dan egoeria

Alfako bihargiñak aspalditik dabiz keizten, urtiak pasatzen jua ahala euren lan baldintzak okerrera zelan egitten dabiz begibistakua da eta. Aurtengo udako oporrak amaittu eta segidan hasi ziran soldatetan izan dituen jaitsierak salatzen eta horren kontra protesta egitten.

Enpresako zuzendaritzak murrizketak aplikatzen hasi baiño lehen zittuen soldatak berreskuratzeko eskaeria be behin baiño gehixagotan etara dabe kalera udatik hona. Horrekin batera, hitzarmen duiña be aldarrikatzen ibilli dira. Soldatak behin eta barriz jaitsi detsela eta haserre, urrian bihargiñak oso modu grafikuan laburbildu eben Alfak izan daben billakaeria:

EIBARKO ENPRESA BATEN HISTORIA LABURRA

2010: Soldatak izoztia.

2012: Soldatak %10etik %30era bajatzia.

2015: Alfa Taldearena zan Industrias GOL 22 millioi eurotan saltzia.

Eta enpresa hori erostiak sortu eban zorra ez eben amortizatu. Bihargiñak galdetu dabiz arren, ez dakixe eragiketa horretatik urten diran millioiak non daguezen eta ez detse horren inguruko azalpenik emon.

2015: Zuzendaritzako hiru kidién artian GOL-en salmentako 2.289.092 euruak banatzen dittue. Orduan be ez eben amortizatu enpresa hori erostiak eragindako zorra.

2017: Bihargiñen eros-ahalmenak izandako jaitsieria %22ra aillegatzen da eta, gaiñera, galeria egunetik egunera haunditzen doa. Enpresak diño ez daguala dirurik lehengo soldatetara bueltatzeko. Halanda be, zuzendaritzako hiru kidiendako dirua egon zala salatzen dabe bihargiñak. Zihetz esateko, euren kalkuluen arabera, GOL-en salmentatik hartutako diruarekin bihargin guztien soldatak 4 urterako berreskuratzeko beste diru eguan.



Oarsoaldian be Alfarekin bat egin zeben.

Mecanizados-erako presentau dabiz enplegua erregulatzeko espedientiarekin”.

Behin puntu honetara aillegauta, eta egoeriari bueltia emoteko esperantzarekin, azaruaren 24an Alfa Precision Casting enpresako bihargiñen batzarra bildu zan. Enpresak Auto Mecanizados-i aurkeztutako enplegua iraungitzeko espedientiaren eta horrek eragingo zittuan 40 kaleratzien kontrako eritzixa nagusi zala ikusitta, asanbladara juandako bihargin gehixenak bost egunetan (azaruaren 27, 28 eta 29xan eta abenduaren 4an eta 5ian) greba egittiarene aldeko botua emon eban. Horren guztia- ren barri emoteko, bihargiñak eta batzarreko ordezkariak San Andres bezperan agerraldixa egin eben Arrate Kultur Elkartean eta, horrekin batera, arratsalde horretarako deittutako manifestaziñuarekin bat egittera deittu zittuen herritar guztiak. Enpresako arduraduneri enplegua iraungitzeko espedientiaren inguruko negoziaziñua exijitzen, jende morduak ziharkatu zittuan herriko kaliak euripian, mekanizatu- etako 40 langille kaleratziaren kontra azaltzeko.

40 kaleratzetik likidaziñora saltua

Enpresako zuzendaritzak 40 bihargin kaleratzeko asmuak bihargiñen artian eragindako egonezak, baiña, okerrera egin eban San Andres eguna pasau eta abenduko lehen egunetako jai egunak gaiñian zittuenian. Izan be, egun batetik bestera eta kaleratze horren inguruan iñolako azalpenik emon barik, abenduaren 7xan zuzendaritzak Donostiako merkataritza- epaitegixan enpresaren likidaziñua gau- zatzeko espedientia sartzia erabagi eban eta, hori be bihargiñeri ezer azaldu edo galdetu barik. Egoeriak derrigortuta ur- gentziatzeko batzarra egin eben egunian bertan eta, hori amaittu eta jarraixan, egoera barrixaren barri emon eben or- duantxe eraturako Greba Batzordeko or- dezkarixak: “Alfa Taldeko zuzendaritzak ALFA PRECISION CASTING, S.A. enpre- saren likidaziñua aurkeztu dau abendua- ren 7xan, biharginendako jai eguna dala aprobetxauta. Gaiñera, bihargiñak greba mugagabia egingo dabela jakin eta gero aurkeztu dau likidaziñorako espedientia. Horrek argi lagatzen dau enpresaren fe-



Durangoko Azoka aprobetxatuta, bihargiñak euren egoeriaren barri emon zeben.



Eibarko Udalarekin ez eze, Eusko Jaurlaritzarekin be egon dira.



San Andresetan jende mordua alkartu zan 40 kaleratzién kontra.

de txarra. Izan be, 40 laguneri eragingo zetsen erregulaziño espediente bat iraggarri eta gero deittu genduan greba mugagabia. Espediente hori Auto Mecanizados ataleko bihargin guztiak kaleratzera bideratuta egongo zala ikusitta, grebaren helburua lanpostuen egonkortasuna bermatzia eta despido traumatikorik ez egotia da. Langillien batzordiak bozkatutakuen emaitza jakin eta gero, enpresa osuaren likidaziñua hurrengo astelehengan, abenduaren 11n aurkeztuko ebela esatera, horren mehatxuarekin etorri ziran. Baiña ezertarako denporia emon barrik, esandakua baiño lehen, abenduaren 7xan gauzatu eben, astelehenerako iragarrita eguan greba mugagabiarekin zer pasauko zan ikusteko itxoin barik. Horrek oso argi erakusten dau enpresak lehelengotikan zekala likidatzeko asmua eta, beraz, ez zekala negoziatzeko asmorik”.

Gaur arratsalderako konzentraziñua deittu dabe, 19:00etan, Untzagan

Bihargiñak salatu dabenez, “enpresak euki dabén ardura bakarra grebak eragin ahal zittuan ondorixuak, grebarekin aurrera egiñez gero horrek zenbat kalte eta galera ekarriko zittuan behin eta barriz ohar-taraztia izan da”.

APC-ren likidaziñuak 129 lanpostu gal-tzia eragingo leuke zuzen-zuzenian eta, gaiñera, leikiana da beste enpresa auxiliarratzeuri be kaltiak ekartzia. Egoeriaren larrittasunarekin kezkatuta, bihargin gehixenak greba mugagabian egotiaz gain, mo-

bilizaziñuak antolatzen segitzen dabe eta, bixen bittartian, politikuengana be jo dabe, laguntasun eta babes billa. Abenduaren 11n bihargiñen ordezkariak Eibarko udal-etxian alkartu ziran alkatiarekin eta boze-ramailien batzordiarekin. Udalari, bestiak beste, Alfa Taldeko zuzendaritzaren, konkurtsoko administradorien eta bihargiñen ordezkarién artian bitartekari lanak egittia eskatu zetsen. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritza eta Diputaziñuarekin batera batenbat edo talderen bat adostia be eskatu eben, inbersore barrixak topatzeko eta, amaitzeko, alde sozialarekin adostasunik lortu ezian, Alfa Taldiaren lurren birkalifikaziñorik ez egitteko eskaeria be egin eben. Eta hurrengo egunian antzerako eskaerak Gasteizerañu eruan zittuen, Alejandro Lopez Carcamo, Eusko Jaurlaritzako Industria departamentuko zuzendarixarekin egindako billerara.

Zuen buzoietan datorren astean!!

GIDA

KOMERTZIALA 2018

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus





FERNANDO RETOLAZA: Udazkenean, Krabelinetik begiratuta.

'Eibar, futbolaren tailarra' dokumentala aurkeztuko da hilaren 27an 19:00etan Armeria Eskolan, eta hurrengo egunean ETB1ean ikusteko aukera egongo da. Hainbat urtetan zehar Eibar KEren berri ematen ikusi dugun Joseba Urkiolak gidatu du lanaren edukia eta Oier Plaza aritu da, irudien bitartez gure hiriaren zein foball taldearen inguruko begirada eskaintzen. "Irudi ederrak ikusi ahal izango dira", aipatu digu Eibarri maitasun berezia dion Urkiolak Plazaren lana goraiatuz.

JOSEBA URKIOLA (kazetaria):

"Eguneroko lanak ezberdinduko du Eibar KE"

- 'Eibar, futbolaren tailarra' izenburua dauka dokumentalak. Herria eta futbol taldea ezin dira bereizita ulertu?

Batzuk pentsa dezakete futbol taldearen inguruko dokumentala dela, baina ez da hori bakarrik. Futbolak dokumentalaren erdia baino gutxiago hartzen du. Herriaren erori eta berriro altxatzeak, garai berrietara nola egokitu den eta horrelako kontuen inguruan jardungo dugu.

- Leitzarra izanik lotura handia daukazu Eibarrekin. Nola sortu da harreman hau?

Taldea Bigarren B mailan zegoela hasi nintzen Eibarrekin eta Lehen Mailako partidua gehienek lekuko izan nintzen. Eibarren denbora asko igaro dut eta jendeak zatarra dela esango du, baina ez nago batere ados. Bertara joanda oso maitatua sentitu naiz eta maitasun berezia diot herriari. Nire bizipen profesionalen eta nire aisian oso gustora egoten naiz Eibarren.

- Hilaren 27an ikusiko dugu emaitza, baina nolako izan da dokumentala egiteko lana?

Oso lan gogorra izan da, oso konplikatu. Era askotako protagonista asko hartu ditugu.

Eibartarrak dira gehienak, baina Michael Robinson ere elkarrizketatu dugu, adibidez. Ingalaterrakoak industriaren semeak direla dio berak. Eibarrek ere zerikusi handia dauka industriarekin, Eibarko zaleek Eskoziari keinu egiten diote eta zelaiak ukitu Britanikoa dauka; eta paralelismo horri lotuta lortu genuen Robinsonekin egotea. Juanjo Alvarezekin ere egon gara. Eibartik kanpo askok ez dakite Alvarezek Eibarren jokatu zuela, eta berak bere diskurtso propioa dauka Eibarren identitate eta nortasunaren inguruan. Jose Luis Mendilibar eta Gaizka Garitanorekin egon gara, eta historian zehar Eibarren emakumezkoek izan duten garrantzia kontuan hartuta, Ane Atristain nesken taldeko kapitaina elkarrizketatu dugu. Egungo errealtatetik garai batekora egiten dugu lotura. Nola armatatik bizikletak egitera pasa zen, eta gero sasoiaren sasoikora hiria nola egokitu den. Konturatu gara ia Euskal Herriko etxe guztietan dagoela Eibarko zerbait: grapadorak, gurizeak, kortxoak ateratzeko... Industrializazioaren inguruan ere hitz egiten dugu, kooperatibismoaz. Arizmendiarretak Arrasaten egindako apustua baino 40 urte lehenago



hasi zen kooperatibismoa Eibarren. Hortik New Yorkeko pasarelara egingo dugu jauzi Roberto Etxeberriaren eskutik. Herriko jende xehea hartzen saiatu gara, herritar normalak. Herritarrak izan dira Eibar aurrera ateratu dutenak eta emakumeek presentzia garrantzitsua dute dokumentalean.

- Donostia inguruan ikusten zaitugu telebistan azken aldian, baina nola ikusten duzu Eibar KE aurtengo denboraldian?

Denboraldi hasieran harrিতuta geratu nintzen jendearen erreazioarekin. Leganesi 1-0 irabazi eta jendea gozagaitz, taldeak gehiago egin behar zuela entzuten nuen. Emaitza txarrak etorri ziren eta taldeak buelta eman dio berriro. Norbaitengan konfiantza eduki behar bada, Mendilibarrengan da. Urtero piezak aldatu arren albumari demaseko argia ateratzen dio. Ondo ikusten dut taldea, baina helburu errealekin; eta horiek dira hamabost egunero lpuurara joaten diren Lehen Mailako taldeak ikusteaz gozatzea eta pixkat bat sufritu beharko dela jakintzat ematea. Ziur naiz aurrera egingo duela.

- Zentzu horretan, eibarzaleen ikuspegia berriz zehazteko balio dezake dokumentalak?

Noski! Eibar zer zen eta zer lortu den baloratzeko. Elkarrizketatu guztiak bat datoz eta taldea berez ez dagokion maila batean dagoela aipatzen dute, ez dagoela sufritu beharrik eta momentuaz gozatu behar dela. Garrantzitsuena ez aldatzea dela diote. Aldatzen hasten zarenean edo helburu gorengoak jartzen dituzue, dena zapuztu egiten da askotan. Errealtateaz jabetu eta taldean konfiantza eduki behar da. Beste foball bat posible den zalantzak ditut, baina hori posible bada eta hori bultzatzen baduzu, ezin zara erori besteen kritiketara. Eguneroko lanak ezberdinduko du Eibar KE.



Eibarzaleen laguntza eskatu zuten dokumentalerako irudiak grabatzeko.

*Bihurriren semea
Asteasun irabazitako
txapela eta sariekin.*



HODEI EZPELETA

Aizkolari gazteen Euskadiko txapelduna

Zapatu arratsaldean Asteasun jokaturako txapelketa horretan Hodei Ezpeleta jubencil mailako Euskadiko txapela jantzi zuen. Ernesto Ezpeleta "Bihurriren" semeak ez zuen lan erraza izan, baina hala eta guztiz ere minutu erdiko aldearekin nagusitu zitzaion Xuban Kañamaresi, aizkolarien familia horretako gazteenari. Bizkaiko lizentziarekin parte hartzen duen eibartarrak ez zuen egun onena izan, baina ondo egin zion aurre izandako egun ez aproposenari. Harri handiekin

– Zelan joan zitzaizun zapatukoa? Ez zen zure egun onena izan, ezta?

Emaitzari begira, pozik egoteko modukoa izan zen, irabazi egin nuelako. Baina egia da asko sufritu nuela. Etxeko lanak egitera irten nintzen, baina urduritasunak arazo asko sortu zizkidan neurea ematerako orduan. Hiruzpalau aste lehenago gastroenteritisarekin ibili nintzen eta oraindik nabaritzen dut orduko eragina.

– Gorabeherak ere izan zenituzten lehian, ez? Aurretik joatetik atzetik ibiltzera pasatu zinelako...

Hasierako bi lehen enborretan aurrea hartu banuen ere, kanaerdikoen ordua heldu zenean, ez dakit egur gogorrakoak zirelakoedo baina nire burua atzetik ikusi nuen. Horri aurre egitea egokitu zitzaidan eta, barneko indarrak baliatuz eta gorputz eta arimaz jardunez, berriro burua hartzea lortu nuen eta baita amaierara arte eustea ere. Baina ezin dut ezkutatu txarto pasatu nuela.

– Lortutakoak zer esanahi du zuretzat?

Eibartar batek maila horretako Euskadiko txapela jantzen duen lehen aldia da eta orain asimilatzen nago oraindik. Egia esan, iaz irabazi nuen Bizkaiko 2. mailakoarekin batera parte hartu dudana biga-

jokatzan zen Euskadiko txapelketaren ekitaldi berean lehiatu zuten aipaturako aizkolariak, guztira sei enbor mozteko jardunean: 45 pulgadako lau enbor eta kanaerdiko bi (54 pulgadakoak). 14 minutu eta 9 segundo behar izan zituzten lanarekin amaitzeko Mendaron bizi den Eibarko aizkolariak eta 26 segundo kendu zizkion Kañamaresi: "Horrek erakusten duena baino estuago ibili ginen. Nire lana amaitzerakoan, pixka bat joaten laga zion bere buruari".

*Maila handiko
garaipena lortu
zuen Bihurriren
semeak.*



rren txapelketa dut hau eta orain arte ezin naiz kexatu. Hala ere, ordukoan erosoago moldatu nintzen.

– Zein duzu hurrengo erronka?

Bizkaiko 1. mailako finala (atzo zen jokatzen Bilboko Areatzan, eskuartean duzun ale hau inprentara bidali eta gero). Bilbon jokatuko dugu, Santo Tomas jaiaren inguruan. Zazpi aizkolari izango gara parte hartzen eta aitaren aurka ere egin beharko dut bertan eta horrek bereziago egiten du eguna. Baina gozatzerako noa batez ere, aurtengoa nuen helburua dagoeneko bete duralako. Ez dut irabazteko asmorik, ezta gaitzekorik ere; ondo egitearekin konformatuko nintzateke.

– Zelako neurketak dituzu gogokoago? Luzeak, laburrakoak?

Jokatu dudana azken txapelketa nahiko esplosiboa izan da, eta denbora guztian arnasestuka ibili naiz. Nekatu ere nahikoa egin nintzen... eta hobeto kontrolatzea gustatuko litzaidake. Baina egunak ere izaten dira: batzuetan gogorrako helduak diozu lehiari, beste batzuetan estuago hartzen duzu zure burua. Eta, hotza egiten badu, komenigarria da aurretik berotzea, gero arnasari laguntzeko.

Herriko igerilariak gogor jardun zuten Gipuzkoako Kopan

Aurreko asteburuan Tolosako Usabal kiroldegian jokatuako Gipuzkoako Kopan, Urbat-Urkoetnik taldeko igerilariak lan bikaina egin zuten, horrelakoetan ohituta diguten eran, eta euretako askok ondo baliatu zuten aukera marka pertsonalak eskuratzeko. Nesken taldeak seigarren postuan amaitu zuen Kopa eta mutilenak laugarrenean. Sailkapen bateratuan, bestalde, bosgarrenak izan ziren egindako lan bikainaren ondoren.



Eneko eta Jon Treviño Espainiako waterpolo selekzioarekin

Urteetako ibilbide bikainarekin jarraitzen dute Urbat Waterpolo Taldeko jokalariek eta, lehen aldiz ez bada izan ere, Espainiako selekzioarekin berriro deitu



die hurrengo teknifikazio saioan parte hartzeko. Ligari dagokionez, bestalde, azken jardunaldian senior 1. mailako talde biek irabazi egin zituzten euren partidua: mutilek 5-17 Leioan eta neskek 2-20 Sestaon.

Emakumezkoen errugbilari taldeak garaipen argia lortu zuten asteburuan

Bera Berari 66-7 irabazita, senior mailako taldea Euskadiko Ligako bigarren postuan dago sailkatuta, bost garaipen eta porrot bakararekin. La Unica da multzoko liderra, 30 punturekin, eta eibartarrek (25) puntu bakarreko aldea kentzen diote Escor Gaztedi hirugarren sailkatuari. Urtarrilaren 13ko hurrengo partiduan, gainera, Gasteizen jokatu beharko dute euren artekoan. Gizezkoen talde guztiak, bestalde, galtzaile izan ziren azken jardunaldian: senior nagusiak Burgosen 62-17 galdu zuten liderrarekin, bigarren taldeak 50-7 Hernanin, 18 urtetik beherakoen taldeak gutxiatik (22-19) Arrasaten eta 16 urtetik beherakoek Txingudiren kontra (80-10).



Txoko da du foball-zaletuen ligako buru Gabonetako oporrei begira

Foball-zaletuen Liga txapelketaren 37. edizioak beste atsedenaldi bat hartuko du Gabon oporrak direlata, oraingoan hiru asteburukoa, hurrengo jardunaldia urtarrilaren 13 eta 14ko asteburuan jokatu baita. Kirolbet-ek babesten duen txapelketaren azken jardunaldiak ez ditu gauzak argitu goiko postuei dagokienez eta, beraz, lehiaketak bere gorenean dihardu. Lehen bi sailkatuen arteko norgehiagoka binako berdinketarekin

amaitu zen eta, horrela, Bar Txokok lau puntuko aldeari eusten dio; hori bai, orain Ipur Sagardotegiak Azkena Adahirekin egin du bat bigarren postuan eta horiengandik puntu bakarerra dugu Garajes Garcia. Lau talde horiek dira, une honetan behintzat, liga irabazteko faborito nagusienak. Sailkapeneko beheko aldeari begira, Bar Arkupek jokatuako partidu guztiak galdu ditu eta oraindik ez du punturik bereganatu.

JOSE LUIS APELLANIZ SAN VICENTE

2017ko abenduaren 15ean hil zen

Bihotz-bihotzez ESKERTZEN DIZUEGU eskainitako laguntza eta babesa.
FAMILIAKOEK

Gerrako aztarnak elur artean ikusi zituzten Deporreko mendizaleek

"Ibilbidea pagadi eta baso zoragarrietan barrena" burutu zuten esaten dute Klub Deportiboko mendizaleen azken irteeran parte hartu zutenek. 56 laguneko taldeak *"hasieran euria, baina gero elur bihurtu zen egunean"* ondo gozatu zuen halako egoera berezian ikusitako milizianoen aterpeekin, arma biltegiekin, lurperatze zenbait arrastoekin eta baita *"euskar gobernuak erresistentzia antolatzeke erabilitako etxearekin ere"*. Otxandiora egindako urteko azken txango horretako ibilaldi zirkularra amaituta, eta 1936ko gerraren aztarnak ikusi ondoren, zapatu horretan bazkari oparoaz ere gozatzeko parada izan zuten Koroztondo jatetxean, kanta eta umore onean. Bejondeiela!



Euria eta elurra izan zuten "lagun" mendizaleek. Periko Iriondo

Gabon Traila egingo dute domeka goizean mendi-korrikalariek

Laugarren edizioa izango da aurtengoa eta, ohikoa denez, 08:30ean Klub Deportiboaren aurrean talde-argazkia atera ondoren, 17 kilometro eta erdiko ibilbideari


ekingo diote, bertan pilatutako 860 metroko goranzko desnibelarekin. Azitaineraino jaitsi eta gero, Asola Berriko bidea hartuko dute eta, Amabirjinaren pausoe-

tatik, Arraten hartuko dute lehen atsedena. Han Olabeko zelaitik Kalamuako bidera joko dute eta, behin Aizketa lehen tontorra eginda, Akondiako lepora iritsiko dira Kalamua bigarren tontorrera heldu aurretik. Han ohiko talde-argazkia aterako dute eta Parlamentuan modu berezian ospatuko dute jaisten hasi aurretik. Betiko bidetik joko dute, hau da, Usartzatik eta Ixuatik pasatuko dira eta Urkoko barranko eta lepora doan bidea hartuko dute, kateen bidea. Amezabalegitik Iturburura joango dira pinu arteko jaitsiera polita aprobetxatuta, gero Miraflores, Itzio eta Aldatze-tik Klub Deportiboaren aurrean amaitzeko.



Katedralak binakako txapelketako hiru jardunaldi hartuko ditu jarraian

Astelena frontoiak profesional mailako binakako pilota txapelketaren hurrengo hiru jardunaldietako partiduak hartuko ditu. Datorren astelehenean, hilaren 25ean, Ezkurdiak eta Zabaletak, alde batetik, eta Elezkanok eta Rezustak, bestetik, osatutako bikoteen artekoa izango da jaialdiko neurketa nagusia. Jaialdia Dario-Erostarbe eta Ugalde-Jaunarena bikoteen arteko lehiarekin hasiko da, eta Elordi-Merino eta Errandona-Tolosarekin amaituko.



Hurrengo jardunaldiak urtarrilaren 1ean eta 7an jokatuko dira. Urtea hasteko, astelehenean jokatu den jaialdian, Altuna eta Martija Aspeko bikote gazteenek Asegarceko Bengoetxea eta Larunbe iazko azpitxapelkunak izango dituzte aurrez-aurre. Eta hilaren 7an, domeka, enpresen arteko beste norgehiagoka batekin gozatzeko aukera izango da: oraingo horretan Elezkanok eta Rezustak Olaizola eta Imaz izango dituzte aurkari.



M^a PILAR TELLERIA IZETA

(2017-XII-19)

Untzagako Jubilatuen Etxean gure idazkaria izandakoari urte hauetan egindako lana bihotzez eskertuz. Betirako gure gogoan.

ZUZENDARITZA-TALDEA ETA BAZKIDEAK



Harriak jasotzea maite duen kaletarra

Strongman' probetan ari den Avilako lagun bati laguntzen aritu zen abuztuan Iñigo Jimenez. *"Harriak jartzeko eskatu zidan eta 110 kiloko bola altxatzeko zirikatu ninduen"*. Horrela hasi zuen Iñigok bere ibilbidea harri-jasotzaile moduan. Lehenengoan hanke-tara igo zuen bola, gero paparrea eta hirugarrenean gora. Bi saio gehiagoren ostean berarekin entrenatzeko baimena eskatu zion 'Zelai', *"eta berarekin nabil ordutik"*.

Harri-jasotzearekiko zaletasuna beti izan du Iñigok, nahiz eta kaletarra izan. *"Inguruko baserri-tar zaharrek errezeloz hartzen dute kaletar bat harriak jasotzen ikustea, baina oso ondo hartu naute guztiek"*. Iñigok ere errespetu handia erakutsi nahi du plazan aritzen den bakoitzean. *"Egun batzuk lehenagotik tripa itxita eta lo ezin eginda egoten naiz"*. Badaki harri-jasotzaile handiak aritu diren tokian dabilela, baina harriarekiko duen sentimendua handia da bere kasuan. *"Harriak ez dizu ezer ematen, baina harria ebatzen dudan geroztik beste modu baten sentitzen dut nire burua, libreago"*.

Aro berria harri-jasotzean

Astean birritan entrenatzen du harriarekin eta lehengo harri-jasotzaileak ditu eredu Iñigok. Pesak egitea ez zaio gehiegi gustatzen eta zalantzak ditu komenigarria den edo ez, baina badaki bere helburuak betetzeko prestakuntza ona beharko duela. Josu Zubillaga nutrizionistarekin elikadura zaintzen hasteko asmoa dauka eta indar-kirolak entrenatzeko gunea egokitu du gazte talde batekin bere aitzitxak Jardinetan kalean zuen lokalean. Asko entrenatu behar du, bere helburuetako bat Eibarko harri-jasotze errekorra haustea delako. *"Dioni*

Cortinak 200 kilotan jarri zuen marka eta epe luzean hori gainditzea da nire asmoa".

Iñigoren ustez harri-kirolengako afizio gutxi dago herrian, eta Eibarren harri-kiroletako taldea sortzea da bere asmoa. *"Afizioa galtzen doa eta, ondorioz, herri-kiroletan aritzen den jendea ere"*. Harri-jasotzean lehiatzen, *"hamar inguru"*, baina aro berri baten atean egon gaitzke. *"Azkoitian hego-amerikar bat dabil Goenatxorekin entrenatzen, Eskozian jaiotako Jon Peter Scott (Agirre lehendakariaren loiba) gurekin ari da Mallabian, Gaztelatik ere etortzen dira hainbat harri-jasotzaile... eta maila handikoak gainera!"*.

Lehia eta ezustekoa

Harriak jasotzeari udan ekin bazion ere, 'Zelai' lehiatzeko prest ikusi zuen eta Bizkaiko Txapelketa Nagusian hartu zuen parte Iñigok. *"Barregarri geratuko ez nintzela esan zidan, azkena geratuko nintzela, baina gauzak ondo eginez gero azkena geratzea ez dago txarto"*. Harri-jasotzaile eibartarra pozik geratu zen egindako lanarekin, *"etxean egindakoa plazan egitera joan nintzen"*, eta hori baino gehiago egin zuen.

Harri-jasotzetik orain arte jasotako *"ia guztia"* ona izan da Iñigorentzat, baina izan du ezustekoren bat. Ekainaren 18an harria erori eta hamar egunetan hanka *"hilda"* eduki zuen. Ez zitzaion hezurrik apurtu eta ez zitzaion ubelduririk egin, *"eta egun batetik bestera sendatu zitzaidan"*. Bere iri-

Iñigo Jimenezi beti gustatu izan zaizkio indar kontuak. Harri-jasotzaile moduan ibilbidea hasi zuen udan, baina bere istorioa ez da ohikoa herri-kiroletan. Kaletarra da eta Avilan hasi zen harriak jasotzen. Jose Antonio Gisasola 'Zelai' harri-jasotzaile handiaren eskutik herri-kiroletako zaleen errespetua eskuratzen hasi da orain Iñigo, eta Dioni Cortinak Eibarren ezarritako errekorra hautsi nahi du.



Josu Torrealday



teko liturgia maite du, eta Ez Dok tabernaren izena eramango du txalekoan eta harrian. *"Zapatu gau bateko berriketaldian irten zen babesaren aukera eta, nahiz eta niri lotsa eman, eurek asmoa berretsi zidaten"*.

Babesaz haratago, Ez Dok tabernak eta Iñigok 'Gora harria' garagardoa kaleratuko dute gaur. *"Zarautzen egindako garagardo artisaua da, American Double IPA motakoa, eta diru-sarrerak lortzeko beste aukera bat da"*. Iñigok aitortu digu ez zaiola garagardoa gustatzen, *"baina hau probatuko dut, gogo handiarekin gainera!"*.

Iñigo Jimenezek eta Ez Dok-ek gaur aurkeztuko dute euren proiektua eta garagardoa, eta horretarako loritz Gisasola 'Zelai IV'.aren laguntza izango du Iñigok. *"Bera aizkorarekin ibiliko da eta ni harriarekin"*. Ez Dok taberna inguruan arituko dira Toribio Etxebarria kalean eta gazteen arreta piztea espero dute.

tziz normala da horrelakoak gertatzea, *"Zelai' berak femurra apurtu zuen antzeko egoeran"*.

Ez Dok tabernaren babes

Lurrari ondo eutsi eta ahalik eta indar gehiena erabiltzeko, ortozik altxatzen ditu harriak Iñigok. Gerria, prakak eta txalekoa janz-

Sostoak urteroko Gabonetako kontzertua eskainiko du gaur San Andres parrokian

Gaur 20:00etan abiatuko den kontzertuak Isabel Laspiur (pianoa), Andrea Berbois (biolina), Eibarko Koru Gaztea eta Belen Sagarzazu (organoa) izango ditu la-guntzaile ezinbestekoak. Urtero egiten den ekitaldi hain berezia izanik eta jendeak euren lana zelan eskertzen duten ikusita, Sostoakoek ere euren esker ona azaldu nahi die eibartarrei: 30 urtetik gorako ibilbidean, batez ere Jesus Mari Sagarza zuzendariaren eta Mari Carmen Etxebarria bigarren zuzendariaren ekarpena eskertu nahi dute eta

"kapitulu berri bat hasten dugun honetan" ahots berriak deitu nahi dituzte taldera: "Abesteak fisikoki, mentalki zein emozionalki onurak besterik ez dakarrelako". Horretarako harremanetarako hainbat plata-forma sortu dituzte: **Whatsapp** Tfnoak: 680629569 / 615407948 Em@ila: coralsostoaabesbatza@gmail.com **Blogger**: <https://coral-sostoa-abesbatza.blogspot.com.es/> **Facebook**: <https://www.facebook.com/Coral-Sostoa-Abesbatza-181101761928041/> **Twitter**: <https://twitter.com/SostoaA>



Bertso-paper sari berri bat Mikel Arrillagarentzat

Atzo eman zioten Mikel Arrillaga Bereziartuari 2. saria Oreretako Zapiain Anaiak bertso-paper lehiaketan, "Oporretako sindromea" izenburuko bertso sortarengatik. Bertsolari eibartarrak egun gutxiko tartean jaso duen bigarren saria da hau, ALBE Algortako Bertsolari Eskolak antolatutako 12. Balendin Enbeita bertso-paper lehiaketan ere bigarren saria jaso berri du eta. Lehiaketako lehen saria, berriz, Aitor Albistur oreretarrak irabazi du, "Amaren bularra" lanarekin. Gazteen mailan Julene Iturbek irabazi du, "Nik ere sinesten dizut" izenburuko lanarekin eta bigarren saria eman gabe gelditu da. Sariak banatu eta jarraian bertso-saioa egin dute.

Untzagako Jubilatuen Bergarako elizan gaur

Untzagako Jubilatuen Etxeko Abesbatzak Bergarako Santa Marina elizan abestuko du gaur, 16:30etik aurrera, Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsionisten Elkartearen Abesbatzen XXVI. Topaketetako ekitaldien barruan.

Banatu dituzte Kultuk antolatutako III. San Andres Argazki Rallyko sariak

Aurreko asteko egunean banatu zituzten San Andres III. Argazki Rallyko sariak Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. San Andres eguneko rallyan parte hartu zuten argazkiak proiektatu eta jarraian jaso zuten saria aurtengo irabazleek: haurretan, 0-9 urte bitartekoen mailan, Nahia Lopez Lozano, Koldo Pintado Herrero eta Artetz Larrañaga Dosantos saritu dituzte; 10-16 urte bitartekoen artean, berriz, irabazleak Aiora Unzeta Latatu, Amair Biteri Izagirre, Noah Etayo Lozano eta Alaitz Zabala izan dira; eta 17 urtetik gorako artean, lehen saria Federico Cuenca Larreategik eskuratu du eta bigarrena Jokin Egia Arriolak.



"Alizia lurralde miresgarrian" antzetuko dute hilaren 26an Coliseoan

Euskaraz eskainiko dute aipatutako lana Glu Glu Producciones-ekoek, Galder Perezen zuzendaritzapean. Ipuiaren haur-antzerkirako moldaketa da eskainiko dutena, ipuin klasikoak abiatuta gaur egungo haurrei zuzendutako obran. Bertan ikastearen edertasunaz eta beharraz jardungo dute, kantu eta dantza tartean direla. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da funtzioa eta sarrerak 5 eurotan salduko dira.





Anartz Zuazuaren "GU" antzezlanaren taularatuko du Borobilek 29an

GU gure planetaren bidaia da, Lurra protagonista duena. Antzezlan horretan naturak eta gizakiak historian zehar bizi izan duten maitasun istorioak gozatzeko aukera izango da. Espezie guztiek bere tokia zuten hasierako nolabaiteko armonia hartatik abiatuta, gizon Tximiniak etorri eta inguruan eragindako transformazioa erakutsiko dute, industria sortu eta edertasunaren pertzepzioa zelan aldatuko den azalduz. Gizakia oxigeno maskara duen espezie berria bihurtuko bada ere, dena ez dagoela galduta nabarmenduko da lanean. Lau antzezle dituen euskarazko lana Coliseoan eskainiko da datorren asteko barixakuan, 17:00etan hasita.

Bilboko "Zuri-beltza"-ko argazkilarien lanak ikusgai

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak antolatuta, abenduan Bilboko "Zuri-beltza" argazki-taldekoen erakusketak ikusi ahal izango dira El Ambigú tabernan eta Portalea jatetxean. Pedro Ajuriagerra, Carlos Barazón, Sergio Castañeira, Iñigo Elejoste, Jaione Hernández, Juan Ramón Larrocea, Nagore Luengo, Agustin Marcos, Angel Martin, Luis Pedrosa, Kontxi Rodríguez eta Miguel Rodríguez dira autoreak.



Jose Kareaga artista eibartarraren lanak Portalean urtarrilaren 7ra arte

Jose Kareaga Guridi (1930-2008) grabatzaile, pintore, bitxigile eta damaskinatzaile eibartarrak egindako artelanen erakusketa ikusgai egongo da urtarrilaren 7ra bitartean. Erakusketa horretan Kareagak egindako lanaren zati bat izango da ikusgai, batik bat haren margolanak eta grabatuak. Olioan pintatutako margolanek hartuko dute Portaleko erakusketa-aretoaren zatirik handiena, baina akuarelek, marrazkiek eta arkatzez egindako lanek ere beren tokia izango dute. Katalogoak, prentsa-dosierak, argazkiak eta laneko erreminuta asko ere ikusi daitezke.



Olentzero kalejiran izango da domeka eguerdi aldean

11:30ean hasiko da etziko "Zatoz Olentzerorekin abestera" kalejira. Hor izango dira Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleak, Eibarko Kantuzaleak, Kaleetan Kantuz-ekoak... guztiak ere Urkizutik abiatu eta Untzagarainoko ibilbidea egiten. Ordubate geroago, hau da, 12:30ean, Olentzerok gutunak jasoko ditu udaletxean.



"Gustatzen Jata" lehiaketa

Gabonak direla eta, Gustatzen Jata markak lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi duenak, marka hori duen produkturen baten argazkia argitaratu beharko du Facebook-en, "Gustatzen Jata" argazkian etiketatuta. Argazkiak argitaratzeko epea urtarrilaren 6ra artekoa da eta egun horretan "Atsegin dut" gehien duten hiru argazkiak finalista izango dira. Ondoren, irabazlea aukeratzeko botazioa egingo dute Facebooken. Irabazlearentzat saria "Gustatzen Taza" izango da.

"Martxoak 8 Eibarren" kartel-lehiaketa

Eibarko Udalaren Berdintasun Batzordeak 2018ko Martxoaren 8ko programaziorako kartelaren lehiaketa deialdia egin du. Kartelaren gaia "Eibarko Emakumeak: izan direlako, gara" da eta, horrekin batera, "Martxoak 8 Eibarren" esaldia derrigorrez agertu beharko da idatzita. Lanak euskarri fisikoan zein digitalizatuan aurkeztu daitezke eta horretarako azken eguna otsailaren 5a izango da, Pegoran. Saria Eibarko dendetan erabiltzeko 400 euroko erosketa-txartela izango da.



8 piezek osatuko dute etzi eguerdiko txistularien kontzertua

Udaletxeko arkupetan eskainiko du kontzertu hori **Usartza Txistulari Taldeak**, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Programa honako piezek osatuko dute: "Marchas Heráldicas" (Miguel Sanchez Bastida), "Atzerriko Eguberria" (Jose Ignazio Ansorena), "Ohorezko Kontrapasa" (Raimundo Sarriegi), "Gabon abestiak" (Jose Ignazio Ansorena), "Ai hau gabaren" (J.H. Arsuada), "Hartzaren Ehiza" (Luis Aranburu), "Din dan don" (James Lord Pierpont) eta "Marcha Radetsky" (Johan Strauss). Unai Cabanzon eta Danel Montero tronpeta-joleak eta Iñaki Orbegozo tronpa-jolea izango dute lagun kontzertuan.

Euskarazko produktuak

Azken urteetan bezala, Eibarko Udalak HH eta LHko umeen artean Euskarazko Produktuen Katalogoa banatu du. Sasoi honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jokoak oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuta, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu da Euskal Herriko 140 bat udal eta mankomunitateetako Euskarazko Zerbitzuetatik.

Liburutegia berriro saritu dute irakurketa sustatzeko "Maria Moliner" lehiaketan

Eibarko Juan San Martin Udal Liburutegiak Maria Moliner saria jaso du 2017an ere. Maria Moliner saria Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak antolatzen du urtero irakurketa sustatzeko, eta 50.000 biztanletik beherako liburutegiek irakurketa bultzatzeko antolatzen dituzten ekimen onenak saritzen ditu. Berezi ki umeei eta gazteei zuzendutako "Vamos a hablar de libros... y aprendamos a contarlos y escucharlos" izenburuko proiektua izan da saritua; aurten hamahirugarrenez lortu du saria, oraingoa



1.706,66 eurokoa. Liburutegian egiten diren kanpaina berezien artean, une honetan "Olentzero, ekarriko didazu ipuin hau?" jarduera arrakastatsua egiten ari da gazteenen artean.

Supertramp taldearen musika ekarriko digu "The Logical Groupek" hilaren 28an

Datorren asteko egunean iritsiko da gurera Supertramp taldearen tributo-rik fidelena, 2002an Bartzelonan aparteko bost musikariren eskutik sortutako bandaren eskutik. Talde britainiar mitikoaren urrezko garaiak omentzen ditu The Logical Group bandak: diskorik enblematikoen abestirik ezagunenekin batera, izu-



garrizko bideoek laguntzen diete zuzenekoan. 70. hamarkadan diskorik salduenen zerrendan arrakasta bat bestearen atzetik lortzen zuten garai haiek gogoratzeko aukera izango da hilaren 28an Coliseoan, 22:00etatik aurrera, eta 20 euroren truke (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Kezkako dantzariak eta Usartzako txistulariak Frankismoaren biktimen omenaldian

Aurreko asteko barixakuan Gipuzkoako Diputazioaren jauregian egindako ekitaldian, probintziako Urrezko Domina eman zitzaizkien Frankismoaren biktimei eta, ohi bezala, ezpata-dantza eskaini zitzaizkien, probintziako hainbat dantzari eta txistulari bat eginda. Han izan ziren gure herriko Kezka dantza taldeko dantzariak eta Usartza txistulari taldeko musikariak, Donostia, Andoain, Beasain, Añorga, Azpeitia-Azkoitia eta Elgoibarko dantza taldeetako ordezkariekin batera. Ekitaldia Josu Garatek gidatu zuen.





David Oteroren kontzertua ERMUAN

Kontzertua emango du David Otero madrildar abeslari, gitarrajole eta konpositoreak Ermuko Antzokian datorren astean, abenduaren 29an, 22:15ean. 1997-2010. urteen bitartean El Canto del Loco taldeko kidea izandakoak, bakarkako ibilbidea hasi ondoren, lehen diskoak "El Pescao" izenarekin sinatu zituen. Oterok Karibeko ikutua daukan pop-a egiten du. Sarrerak 15 euro balio du.

SAHARAREN ALDEKO JAIALDIA

Abenduak 29 Ostirala
Bergarako Gaztetxian
17:00 Tea eta pastak
IGAM fundazioaren hitzaldia
TUPIKA dantzak, Henna tatioak
22:30 HAYUH RAMSI,
AZKAITER PELOX eta NOMADAK
Aterako dirua BRAHIM MOHAMED
AHMED eskolarentzat



Sahararen aldeko jaialdia BERGARAN

Datorren asteko barixakuan, abenduaren 29an Sahararen aldeko jaialdia egingo dute Bergarako gaztetxean. Egitaraua 17:00etan hasiko da, tea eta pastak banatuta. Hortik aurrera IGAM fundazioaren hitzaldia, Ttipika dantzak, henna tatuajeak eta beste jarduera batzuk egingo dira. Eta gauean, 22:30ean, musikarekin gozatzeko aukera izango da Hayuh Ramsi, Azkaiter Pelox eta Nomadak taldeekin. Jaialdiari esker lortzen duten dirua Brahim Mohamed Ahmed eskolarentzako izango da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Celestino Etxebarria Olabarrieta. 90 urte. 2017-XII-12.
- Antonio Saavedra Vazquez. 82 urte. 2017-XII-12.
- Idoia Ircio Ezquer. 59 urte. 2017-XII-13.
- Jose Alberto Garate Ormaetxea. 70 urte. 2017-XII-13.
- Begoña Mintegia Aranbarri. 87 urte. 2017-XII-13.
- Victoria Hurtado Candelas. 85 urte. 2017-XII-13.
- Juan Luis Kapanaga Aranzadi. 58 urte. 2017-XII-14.
- Blanca Sarasketa Mugerza. 91 urte. 2017-XII-14.
- Adela Martinez Perez. 83 urte. 2017-XII-15.
- Jose Luis Apellaniz San Vicente. 84 urte. 2017-XII-15.
- Roberto Sarasketa Alzerreka. 59 urte. 2017-XII-16.
- Emilia Herrero Fernandez. 70 urte. 2017-XII-17.
- Juan Jose Etxaburu Larrañaga. 80 urte. 2017-XII-18.
- M^a Angeles Gomez Cid. 47 urte. 2017-XII-18.
- Iñaki Etxebarria Ramos. 83 urte. 2017-XII-19.
- M^a Pilar Telleria Izeta. 77 urte. 2017-XII-19.
- Imanol Trebiño Barruetabeña. 52 urte. 2017-XII-19.
- Penha de Jesus Lopes. 49 urte. 2017-XII-20.

farmaziak

- Barixakua 22
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Zapatua 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 26
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 27
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 29
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2017 AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

jaiotakoak

- Sare Azpiazu Marfull. 2017-XII-12.
- Haizea Zubeldia Txintxurreta. 2017-XII-12.
- Alba Rosales Aldezabal. 2017-XII-16.

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

1	3	9	7	8	5	6	4	2
5	4	6	1	2	9	8	3	7
8	2	7	4	3	6	5	1	9
2	5	8	6	7	2	1	9	4
7	9	4	3	1	8	2	6	5
2	6	1	9	5	4	7	8	3
9	1	5	8	4	7	3	2	6
4	8	2	5	6	3	9	7	1
6	7	3	2	9	1	4	5	8

6								5
1		2	6					
7	8			2	1			4
			8			9		
	6						8	
		7			4			
4			2	8			9	5
					5	4		3
	5							8

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalitzangoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 22**GABONETAKO AZOKA**

11:00/14:30 eta 17:00/20:30. Eibart 13. Azoka. Untzagan.

HARRI-JASOTZEA

19:30. Iñigo Jimenezen erakustaldia eta Gora Harria garagardoa. Ez Dok tabernaren eskutik. Toribio Etxebarria kalean.

KONTZERTUA

20:00. Gabonetakoa, Sostoa abesbatzaren eskutik. Isabel Laspiur (pianoa), Andrea Berbois (biolina), Eibarko Koru Gaztea eta Belen Sagarzazu (organoa). San Andres elizan.

Zapatua 23**GABONETAKO HAUR PARKEA**

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:30 eta 17:00/20:30. Eibart 13. Azoka. Untzagan.

GABON KOPA IGERIKETA LEHIAKETA

16:00/20:00. Gabon Koparen 29. edizioa.

Domeka 24**IV. GABONTRAIL**

08:30. Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta. 17'5 kilometro (3 ordu / 3 ordu eta erdi). Irteera eta helmuga: Deportiboaren parean.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:30 eta 17:00/20:30. Eibart 13. Azoka. Untzagan.

KALEJIRA

11:30. "Zatoz Olentzerorekin abestera", Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleak, Eibarko Kantuzaleak, Kaleetan Kantuz... Urkizutik Untzagara.

12:30. Olentzerok gutunak jasoko ditu. Udaletxean.

KONTZERTUA

12:00. Gabonetakoa, Usartza Txistulari Taldearen Gabonetako kontzertua. Untzagan.

Astlehena 25**GABONAK AZITAINEN**

11:00. Jesus jaio dela ospatzeko meza. Azitaingo elizan.

Martitzena 26**GABONETAKO HAUR PARKEA**

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:30 eta 17:00/20:30. Eibart 13. Azoka. Untzagan.

ANTZERKIA

17:00. "Alizia lurralde miresgarrian" (Glu Glu Producciones). Coliseoan.

Eguaztena 27**IKASTEN**

10:00. Ibilaldia: Ixua-Arrate-San Pedro-Eibar. Ez da bazkaririk eraman behar. Autobusa Egogainetik irtengo da.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:30 eta 17:00/20:30. Eibart 13. Azoka. Untzagan.

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAREN BATZARRA

20:00. Ohiko Batzar Nagusia. Portalean.

Eguena 28**KABALGATARAKO TXARTELAK**

09:00/12:30. Urtarrilaren 5ean, Erregeen Kabalgataren aurretik Ipurua kiroldegian dantzak ikusteko txartelak banatuko dituzte. Udaletxeko patioan.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:30 eta 17:00/20:30. Eibart 13. Azoka. Untzagan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

KONTZERTUA

22:00. "The Logical Group" (Supertramp taldearen musika). 20 euro (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Erakusketak**Abenduaren 29ra arte:**

– "XV. URTEURRENA ION FIZ GOI-MAILAKO JOSKINTZAN". (Armagintzaren Museoa)

Urtarrilaren 7ra arte:

– EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA. (Portalean)


– "JOSE KAREAGA - ARTISAU/ARTISTA 1930-2008". (Portalean)

– ESTHER GALARZAREN ZERAMIKA. (Topalekuan)


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ANE, edarto pasatu genduan juan zan astebukaera osua zure 7. urtebetetzia ospatzen, ezta? Patxo haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, MALEN Urizar Arruti, aurreko barixakuan 9 urte egin zenduazelako. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, UR Agote Gorostizaga, hillaren 8xan 8 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, UNAI, hillaren 24an 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Julenen partez.




Zorionak, ANDER, bixar 7 urte egingo dozuz-eta. Musu bat etxeko danon eta, batez be, Amaia arrebaren partez.



Zorionak, BITTOR!!, hillaren 28xan 2 urte beteko dozuzelako. Oso ondo ospatu ingurukuekin. Patxua famelixaren partez!



Zorionak, ZALOA, zure 11. urtebetetzian. Jarraitu zure irribarre zoragarriarekin. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LAIA, atzo 5 urte egin zenduazena-eta. Ondo pasa eta musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ELENE Salas Garaiburu, zure 6. urtebetetzian. Amama eta etxekuen partez.



Zorionak, NORA, maittia, atzo 8 urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi-haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LUR, domekan urtetxua egingo dozu-eta! Musu haundi bat etxeko danon partez.



Ongi etorri, SARE! Unax, Markel eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANDER (atzo 6 urte bete zenduazena) eta NORA (19xan 2 egin zittuan). Asko-asko maite zaituegu. Etxekuen partez.



Zorionak, NORA, haraiñegun urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Malenen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 17:00, 19:45, 22:30
25ean: 20:30

"Perfectos desconocidos"

Zuzendaria: Alex de la Iglesia



(2 ARETOAN)

23an: 17:00

"El sentido de un final"

Zuzendaria: Ritesh Batra



(2 aretoan)

23an: 19:30, 22:30
25ean: 20:30

"Star Wars. Los últimos Jedi"

Zuzendaria: Rian Johnson



(ANTZOKIAN)

23an: 17:00, 19:45, 22:30
25ean: 20:30

"Jumanji. Bienvenidos..."

Zuzendaria: Jake Kasdan



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Apartamentua salgai edo alokagai Polonia Etxeberria 14, behean. Estreinatzeko. Tel. 649-935239.
- Pisia salgai erdialdean. 99 m². 1. solairuan, kontsulta edo bulegoetarako egokia. Pegora berriztua. Merke. Tel. 656-723437.

1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-463828.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Gazteendako lokalak alokatzen da Jardina, 34an. Jarduerarako lizentziarekin. Inguruan etxerik gabe. Instalazio berriak. Aireztapena eta argi naturalarekin. Tel. 656-756485.
- Lokalak alokagai Birjinape 1-ean, erosteko aukerarekin. 33 m². Guztiz konpondua. Alokatzeko: 460 euro. Saltzeko: 100.000. Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: bulegoak, tabernak, pegorak, lokalak... Tel. 632-558402.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburuetan. Tel. 603-743240.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-821546.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-821546.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-259146.
- Neska eskaintzen da umeak, helduak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 642-416503.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako: nagusiak, umeak edo helduak. Tel. 602-347678.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako: nagusiak, umeak edo helduak. Tel. 631-654967.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 612-493242.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-655390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-041526.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 631-155993.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-706846.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-502177.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka edo arratsalde. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduzabala. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Tel. 657-479770.
- Emakume langile eta arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko (etxean edo ospitalean) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 603-514085.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-551711.
- Mutil langilea eskaintzen da sukaldarilaguntzaille moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 622-321095.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Erreferentziak. Tel. 677-868887.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Interna. Tel. 600-836168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Esperientzia. Tel. 632-174225.
- Emakume euskalduna eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 629-889465.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduzabala. Tel. 643-032205.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 648-803352.
- Mutila eskaintzen da piezak muntatzeko eta garraiolari moduan jarduteko. Esperientzia. Tel. 651-038503. Ibon.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduzabala. Tel. 631-167908.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta formazioa. Tel. 602-161496.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-245326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-788556.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-288257.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 622-684289.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-430606.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldarilaguntzaille jarduteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-738823.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 687-103006.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-340357.
- Emakumea eskaintzen da tabernan edo beste ezertan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 673-403149.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-949742.

4.2. Langile bila

- Ilepaintzailea behar da ilepaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-256591.
- Sukalde-laguntzailea behar du Eibarren taberna batean. Tel. 665-308025 eta 685-286303.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Cometa Fenix 400 haizezko karabina salgai. Kutxa eta guzti. Ia berria. Tel. 688-803449.
- Ohe artikulatua salgai. Motorizatua, hiru mugimenduekin. Gutxi erabilia. Tel. 635-746250. Ana.
- Bi bizikleta salgai, 12-16 urte bitartekoentzat. Gutxi erabilia. 100 euro bakoitza. Tel. 650-022371. Itziar.

6.2. Eman

- Mikro-uhina emango nuke. Egoera onean. Tel. 649-360866.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Motxila beltza galdu dut (Milan markakoa). Barruan ikastolako materiala dauka. Tel. 652-761387.
- Kartera bat, diruarekin, aurkitu nuen aurreko astean Urkizu parkean. Tel. 943-120077.
- Ford autoko giltza galdu nuen. Udaltzaingoan laga edo deitu, mesedez. Tel. 631-330218.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Hyundai H PROMISE



i30 Klass
1.4 MPI 100cv
9.900€
4€/egunean

ix20 Klass
1.4 CRDI 90cv Diesel
9.900€
4€/egunean

Zure i30
edo ix20,
gosari baten prezioan



5 URTE
KM-ETAN MUGARIK
GABEKO GARANTIA



Hyundai ix20 gama: CO² emisioak (gr/km): 110-150. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,2-6,5.
Hyundai i30 5p: CO² emisioak (gr/km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100km): 3,6-7,3.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan ix20 5P CRDI 1.4 90CV BD KLASA (66,2kW) eta i30 5P MPI 1.4 110CV BD KLASA 73,6 KW-erentzat. Eskaintza baliagarria stock-a amaitu arte. BEZ, garraioa eta 1.600€-ko deskontua Santander Consumer EFC S.A-k aurrez aztertu eta onartutako ibilgailuaren finantziario lotuta, 8.000€ gutxienez, 60 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin. Kalkulatutako eguneroko kuota: 8.000 € 120 hilabetetan. Eskaintza 2017/12/31ra arte da baliozkoa.

H PROMISE-k zure i30 edo ix20-a eskaintzen dizu prezio eta baldintza hobereenetan. Orain, gainera, Hyundai-ren Cinking-a duzu barne:

- 5 urteko bermea erosketaren unetik eta kilometroetan mugarik gabe
- 5 urtetarako asistentzia errepidean

OARSO CAR

HYUNDAI KOITZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM



ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 **943 74 14 80**

LINTZIRIN-OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1 **943 49 48 30**

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1 **943 80 40 54**

Gabonetako OTARRA

Pedro Mari Arrizabalagarentzat



2.000 €ko balioa duen 10.260 zenbakiarentzat

Aurreko barixakuan jaso zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak zozketatu duen Gabonetako otarra irabazleak, Pedro Mari Arrizabalagak. Aurreko asteko eguaztenean egindako zozketan, saria 10.260 zenbakiari egokitu zitzaion eta irabazleak hurrengo egunean deitu zuen ...eta kitto!-ra, saritutako zenbakia berak zuela esateko. El Corte Inglesean eman zioten saria dendako Marketing saileko Joana Fernandezek eta ...eta kitto!-ko Marisol Uriartek. Aurtengo irabazlea pozarren bueltatu zen etxera, jan eta edateko produktuekin betetako bi otarrak eta 500 euroko erosketa txartela hartuta. Zorionak eta on egin!



no+vello

EIBAR

No+Vellok ZENTRO BERRIA zabaldu du Eibarren! Hobetua eta berriztua, kudeaketa eta langile berriekin. Zentro berri honetan depilazioa potentzia altuko Diodo Laserrarekin eta IPL Fotodepilazioarekin konbinatzen dugu.

– DIODO LASERRARI ESKER GARATU DA FUSIO-SISTEMA, EZTA?

Fusioa Diodo Laserra eta IPL SHR (Argi Pultsatu Bizia) teknologien konbinazioa da, eta gorputzeko ilea kentzeko emaitzarik onenak bermatzen ditu. Bi tekniken erabilerari esker, era guztietako azal eta ileak era seguru eta eraginkorrean zaintzen ditugu, tratamenduaren fase bakoitzeko premietara egokituz.

No+Vello Eibar zentroan, lehenik eta behin, balorazio personalizatua egiten dugu, galdeketa eta doako proba baten bitartez.

– ZELAKO TARIFAK DITUZUE INNDARREAN?

Bi tarifa-mota ditugu: **TARIFA FINKOA** dugu alde batetik, zona eta saio bakoitzeko 30 eurokoa: tarifa honekin, zentrorra zatozen bakoitzean, 30 euro ordainduko duzu depilatu beharreko zona bakoitzeko. Bonu, baldintza eta kontraturik gabe. **Eta NO+VELLO KLUBAREN TARIFA bestetik;** azken hori berritasuna da No+Vello Eibar zentro berrian. Horren barruan bi modalitate daude:

– **Premium Kluba: 60 euro hilean.** Mugarik gabeko saioak urtebetean, depilatu nahi diren zona guztientzat. Goizeko or-

dutegian soilik, eta asteleheneretik ostiralera.

– **Urre Kluba: 35 euro hilean.** Mugarik gabeko saioak urtebetean, aukeratutako hiru zontan (hankak izan ezik). Gainerako zonek eta tratamenduek %20-ko deskontua izango dute. Edozein ordutegitan. Hori bai, Klub-eko plazak mugatuak dira.

– ETA BERTAN ZELAKO TRATAMENDUAK ESKAINTZEN DITUZUE?

Aurpegi-gaztetzea dugu, esaterako: IPL bidez aurpegia gaztetzeko argi biziko pultsuak aplikatzen ditugu. Argi hori



dermisen sartzen da, baina azaleko geruza kaltetu gabe. Betetze-efektua lortzen da, azala barrualdetik gehituz.

Aurpegi-garbiketa ultrasoinuekin da beste aukera bat. Garbiketa da azal perfektua izateko lehenengo urratsa. Ultrasoinua edergintza-sektoreko teknologia berritzaileenetakoa da. Aurpegia sakontasunean garbitzen du, zikinkeria kentzen du baina azalari kalterik eragin gabe.

Eta, azkenik, **aurpegi-tratamendu personalizatuak** ditugu. Lehenengo azterketan, Wood lanpara eksklusiboarekin, zein aurpegi-tratamendu mota izango den egokiena erabakiko dugu, eta, batez ere, zein zona kritikoetan aplikatuko den.



Ego-Gain, 20

El Corte Inglés parean

943 53 88 05 / 688 87 26 68

ASTELEHENETIK OSTIRALERA:
09:30etik 13:30era eta 14:30etik 19:30era
LARUNBATETAN:
09:00etatik 14:00etara.

